

74 mb. 1999ko otsaila

74 mb. 1999ko otsaila

GASTEIZ

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

GASTEIZ



KORRIKOR JARRIAK

bertsolariak

GASTEIZKO PLAZARA

otsailaren 27an

Bertsolariak Gasteizko plazara Korrika gogoan

TARDIA KIRO / GEU ELKARTEAREN KORRIKA

Negua amaieratik udaberriaren hasierarako. Hotzetik epeltasunera. Bertsolariekin Korrikarako epeltzen-berotzen hasiko gara. Otsailaren 27an, larunbata, bosgarrenez, bertsolariak hurbilduko dira Principal Antzokiko euren urteroko hitzordura: "Bertsolariak Gasteizko Plazara". Une egokia izango da hau, hiru aste beranduago Gasteizko kaleak hamaikagarren aldiz zapalduko dituen Korrikak euskaltzale gazteiztarron esker ona jaso dezan eta era berean geure burua bertso giro gozoan Korrikarako berotzen hasteko.

Badatoz, beraz, bertsolariak, herriz-herri, bidez-bide Principal Antzokira. Herriarengandik hitza hartu, borobildu eta herriari atzera berriz ematen dioten horiek. Eta bertsozaleak eurekin bat eginda, adi-adi, bertso bakoitzaren majia garatu nahian. Berriro gurekin, Gasteizen gero eta ugariagoak diren bertso saioretako giro berezi, majiko hori indarberrituz.

XX. mendeari amaiera ematen dion 1999 urteko "Bertsolariak Gasteizko Plazara" jaialdiak azkenengo hamarkada honetako hiru ordezkari garrantzitsu ekarriko dizkigu: Andoni Egaña, Jon Sarasua eta berriki Araba-Bizkaiko txapela lortu duen Igor Elortza. Hauekin batera Araban puntako bertsolariak diren Oihane Perea eta Asier Otamendi eta 1998ko errebelazioa izan den Oihane Enbeita izango dira jaialdi honetan parte hartuko dutenak Josu Goioetxea gajartzaille eta aurkezlearen aginduetara.

Eta arestian aipatu dugun bezala ekitaldi honen barruan GEU (Gasteiz Euskalduna) Elkarteak Korrika omenduko du esker onez AEKri oroigarri xume bat eskainiz...

Zeren hiru aste beranduago Korrika, pausoz-pauso, hurbilduko baitzaigu Gasteizko kaleetara eta hamaikagarrenez gainera. Hamaika, euskaldunontzat sarritasunaren sarritasunaz liluraturik, zenbaki zehatza baino gehiago ugaritasunaren etengabeko adierazlea.

Gure barneko bi urteroko egutegian, udaberri barneratua, beraz hainbatgarrenez, Korrika Gasteizko karrketan zehar. Korrika, hitz errimatuen maisu-maistrak bezala, herriarengandik sortua eta herriari bere uzta atzera berriz ematen diona. Bidez-bide, herriz-herri etorria, laztandua, gure magalean ordu batzuetarako hartuko, berotuko, indarberrituko duguna, gaituena.

Korrika Korrikarekin bat eginda bertsolariekin Gasteizko Plazan bat egingo dugun modu berean. 1980tik ez dituzu alferrik 19 urtetan, hamaika aldiz Gasteizko auzo eta bazterrak alaitu. Pasatu zaren bakoitzean, euskara ikasteko motibatu, euskaldunago egin gaituzu, euskalgintzarako kemena berritu diguzu.

Bertsolarien majia Principal Antzokian, bosgarrenez dastatuko dugulako, Korrikaren miraria posible egiten dutenei zer eskertu badugulako, zita bat daukagu otsailaren 27an. Elkar ikusiko dugulakoan.

Lanordu bat akordioaren alde

Naturaren isladak



Basakatu (*Felis sylvestris*)

74. ZENBAKIA. 1.999KO OTSAILA.

GEU GASTEIZ, Gasteizko Euskoaldunen libelbekaria

ERREDAKZIOA:
Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:
Estiburo Erenas Glez, de Zarale.

ERREDAKZIO-ARDEURADUNA:
Raul Saez de Buruaga.

ERREDAKZIOA:
Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZTARIA:
Eleria Sanz.

MAIETA:
Galzaquin Argitarapenak
Telefonoa: 970 40 18 46

INFGRAFIA:
Galzaquin.

KOMIPIA:
Itziar Sarasola

NATURAREN ISLADAK:
Conrado Tejado.

KOLABORATZAILEAK:
Pablo Ruiz, Alberto Frias, Cecilio Lpz. de Luzuriaga.

PUBLIZITATEA:
Karlos Edez. de Beño.

BANAKETA ARDEURADUNA:
Txipi Ormaechea.

INERIMATEGIA:
Gerlu Coop. E. (Zubillapa, Cnati)

ALE KOPURUA:
2.500

LG: M-552/22
ISSN: 1133-0955
Franko: Hundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER ECOLOGIKOZ EGINA DAGO

Geu Gasteiz libelbekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Tinko, gaztelera baino euskaraz zinea ikusteko aukera gehiago.

HIZKUNTZA

11 OTT.

aurkibidea

Iturrieta, era tradizionalako lehen sagardotegia Araban.



GIZARTEA

14 OTT.



iritziak

30 Alberto Frias

Zentral zaharkitu baten miseria.

33 Cecilio Lpz. de Luzuriaga

Zer egin sakabanaketaren aurka.

34 Pablo Ruiz

Araba pabilioia abizenek aldatu da.

laburrak

7 Geurekin mendira

Arkamu ezagutzeko txangoa.

erreportaiak

8 Hizkuntza

Tokieder, euskaraz biziz.

euskararen normalizaziorantz.

11 Zinea euskaraz Tinko,
naturalitasunez.

14 Gizartea

Arabian ere, txotx egiteko aukera.

piti-pata

17 Txikienon orrialdeak.

Txiri, Mirri ta Txinbiton.

kirolak

27 Pilota

Esku pilota, hankaz gora.

29 Botepronton:

Cipi anaiak, pilotagileak.

kultura

21 Literatura

Judimendi, hain gertu.

22 Musika

Boogaloo, erritmoa eta beroa

24 Gaurkoak eta betikoak

Aerosmith, Amaia Zubiria...

25 Agenda

Otsaileko kultur ekitaldien zerrenda

ohikoak

2 Editoriala

Naturaren isladak

5 Kalea Mintzo

32 Komikia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



Gasteizko Udala Argitarapen Zerbitzua



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



ALFABETATZE ETA EUSKALDUNTE KOORDINAKUNDEA

Hala guzti hau 1986ko urtearen 22an bertan izan da.

Zuzen: 000419 bitartean oso dira gure web gure kontatuz. 1986ko abenduaren 21ean kontatuz hau jarri gurematik.

AEK KOORDINAKUNDEA

HELBIDEA: <http://www.jalg.com/aeK>

SORTZAILEA: AEK koordinakundea

Korrika datorrela eta orrialde interesgarria da Jalgi zerbitzariaren barne kokatzen den AEKren web orrialdea. Ia bostehun pertsonak bisitatu dute dagoeneko aurten orrialdea. AEKren historia, ekitaldiak, kanpainak, aldizkariak eta beste hainbat gauza aipagarri agertzen dira bertan. Urtarrilaren 22an berriua izan zen baina laister, Korrikaren inguruko informazioa eskeintzeko, berriz berriuko dute.

santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzki postazi: **pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53**

SALTZEN DUT

Antzinako txanponen bilduria saltzen dut, baita gehiago ere. Mende honetakoak eta nazio antzekoak ere badauzkat.

945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarrean ipintzen den kristalbo asko duen honetako dotore bat. Oso 6na da.

945 22 73 03 Maite

Telefono mugikorra daukat salgai. Avcom Elitso (Artel), 19.000 pta. balio du eta nik 15.000 pta. salduko dizut.

945 22 73 03 Jabi

Pedro Sainz margolariaren oleo bat daukat salgai Arabako Lasarte herria da. 1.08x87. Sainzuria: 60.000

945 22 73 03

Trono txurako aulki handi bat daukat salgai, oso aproposa adineko jendearentzat. Erosoa. Sainzuria: 12.000

945 22 73 03

Zetme-fusil bateko bala-zorroz eginiko gerrakoa salgai dut. Kalean janzteko ikuskaria. Zinez. Sainzuria: 8.000

945 14 54 90 Iñigo

Citroen GS bat saltzen dut. Oso ondo dabil.

945 13 83 59 Blanca

ALOKATZEN DUT

Aktiboan dagoen narategia alokatzen da. Esparru zabal da eta ondo prestatuta dago.

945 24 08 65 Ana

Geu Gasteiz aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2. 3.a faxa: 22 21 53 geugaste@grn.com

DEITZEN DIZUT

Ohiko osasun sistemari asetzen ez bazaituzte, zator Sumendi osasunaren auto-gestioaren aldeko elkartera.

945 22 65 03

Ez hago bakarrik! Hator Gaitasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkeneo.

945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkartea. Hizkuntza bakiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara.

Zapatari kalea, 29

PREMIAZKO TELEFONOAK (BETI 945 AURRETIK)

S.O.S. DEIAK:	112	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALZAINGOA:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHILTAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERIETXEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

hozkailetan

Ai, bakardadea nolakoa den. Gogorra, latza oso. Ez dakigu Pizarro jauna bakarrik sentitzen ote den baina gu prest gaude, hala balitz, nahi adina laguntasuna emateko. Hori bai, gauza bat eskatzen diogu trukean, Gasteizko bide-seinale eta kale izen guztiak euskaratu ditzan. Horrenbeste eskatzea ez da, bada.



Nomenklator

Aurreko alean Arabako Foru Aldundiak Nomenklator izeneko liburua argitaratu eman zuela eta ohiko lekuetan doan hartzeko aukera zegoela jakinarazi genizuen atal honetan. Bada, itxuraz, epeak zerbait luzatu ziren eta liburua eskuratu nahian hurbildu ziren hainbat lagunek ezin izan zuten berau eskuratu. Hori badakigu hainbat eta hainbat dei jaso ditugulako erredakzioan.

AFArekin harremanetan jarri gara eta dagoeneko liburua eskuragai dela ziurtatu dezakegu. Hori bai, Bulego teknikoetan jaso behar da, Probitzia Plazan hain zuzen ere.

Jendetza Izugarria / Ederla Sanz

Bilbora joan gara oraingoan fotonotizia bilatzeko, eta ezin zen beste era batez egon. Ehun milatik gora lagunekin inoiz Euskal Herrian egin den manifestazioarik handiena izan zen euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko oihukatu zuena. Bilbo txiki geratu zen eta manifa bat ez ezik beste bizpahiru manifestazio burutu ziren ibilbidearen ondoko kaleetan zehar.

Entzun behar zutenek ez zuten, baina, euskal gizartearen garrasia aditu. Nolanahi ere etorkizuneko ondorio garran-tzitsuak ekarriko ditu presoaren aldeko ekimen izugarri harek, aspaldiko partez, euskaldunok elkarrekin aritzeko gai garena demonstratu baikenion ekarri. Ea egunen batean elkarlanak amesturiko emaitzak ekartzen dituen.



fotonotizia

termometroa

sutondoan



kalea mintzo

TESTUAK: NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK: ANIA IBISATE



MIGUEL ANGEL
LARRABALEA

1.- Ikusle moduan irtetzen naiz kalera. Beste urte batzuetan mozarrotu izan naiz, baina orain adina dela eta...

2.- Ez, nik ikusten dudana behintzat nahiko merke egina dagoela uste dut. Paper asko eta oihal merkeak erabiltzen dira.

- 1.- Nola bizitzen dituzu zerorrek ihauteriak?
- 2.- Jantziak egiterako oduan zer nahiago duzu, erositako jantzi dotoreak edo etxean duzun arropa, zahar, oihalak...?

ihauteriak

Urtero, otsaila inguratzen zaigun bakoitzean, pentsamendu bera da gure buruan biraka hasten dena, ihauteriak hain zuzen ere. Modu asko daude jai hauek bizitzeko; alde batetik, karroza eta izugarritzko festak ditugu, bestetik, etxeko trapuekin egindako jantziak..., eta badago kontu hauei buruz ezer jakin nahi ez duenik ere.

Hala ere, orokorrean maitatuak dira jai hauek gure gizartean eta ondo pasatzeko aukerari jendeak ez dio ezetzik esan nahi.

Ea ba zer pentsatzen duten Gasteizko biztanleek!



LAURA GONZALEZ
LARRABALEA

1.- Ni, normalean ez naiz Gasteizen egoten. Aurten eskiatzera ez baldin banoa, mendian egon naiteke.

2.- Gazte jendeak, nire lagunek adibidez, oihala erosi eta gero josi egiten dute, azkarra eta ahal duten merkeena izaten saiatuz.



ANDER GARMENDIA
SOLDATZARLEA

1.- Beti bezala, ez dut gauza berezi edo handirik egiten, baina gustukoak ditut, noski.

2.- Gauza guztietan bezala danetatik egoten da. Batzuek diru mordoak gastatzen dute eta beste batzuek, aldiz, ez.



ASUN LANDER
DOUMENTALARIA

1.- Nik neuk ez dut ezer berezirik egin ohi. Soilik nire haurrak jantzi ikastetxera eramateko.

2.- Ni etxean egitearen aldekoa naiz. Oihala erositik, moztuz eta josiz gauza ederak eta txukunak egin daitzkeela uste dut.



MARI CRUZ CASTAÑO
ETXEGANDIEA

1.- Gaur egungoak duela urte batzuetakoak baino ederragoak dira. Konpartsa handiak irteten dira, ederki prestaturik. Politik eta ondo eginak dira.

2.- Gauza ederrak egiteko diru pixka bat behar izaten dela, bestela...



AMAIA
LARRABALEA

1.- Nik neuk nire familia-koekin bazkaldu ohi dut. Denok elkartu eta jantzi egiten gara, bakoitza ahal duen moduan.

2.- Aurkitzen ditugun trapu zaharrak eta beste urteetako jantziak soinean ditugula irteten gara kalera.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

1 x 2 =
2

2000 BAGARA
4000 IZAN GAITEZKE



HARPIDEDUN!:

zure aita, ama, anaia, arreba, iseba, osaba,
lehengusua, lehengusina, semea, alaba,
aitona, amona, iloba, berramona, berraito-
na, biloba, aitagarreba, amagarreba,
suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

...**EGIN ITZAZU**
HARPIDEDUN

PASAEZU TXARTELA, BETE DEZATEN

Izen-deiturak _____
 Telefonoa _____
 Helbidea _____
 Kodea _____
 Herria _____
 Jaiotze data _____ Lanbidea _____

Urteroko kuota: 1.500 pezeta
 Kontu zenbakia (20 zenbaki)

Entitateak Sukurtsela K.D. Kontu zenbakia _____

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
PEDRO ASUA, 2. BA.
01008 TFOA.F 22 21 53

laburrak

KONTSEILUAK OTSAILAREN LEHENENGO HAMABOSTALDIAN GARATUKO DU KANPAINA HAU

Lan ordu bat Bai euskarari akordioaren alde

Ez pentsa Bai euskarari: XXI. mendeko akordioa izazko abenduaren 26an bete zela Euskal Herriko futbol zelaietan egindako ekitaldi historiko horren bidez. Ez, hori abiapuntua baino ez zen izan; oraindik lan handia egiteke dago. Horrexegatik berriro ere Kontseiluan dabilzan lagunek proposamen berri bat hedatu nahi digute euskal gizartea osatzen dugunoi: gure lanaren ordu baten lansaria euskarari ematea.

Kanpaina honek, zeina otsailaren lehenengo hamabostaldian garatuko baita, bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, euskara lan mundura hurbiltzea eta, bestaldetik, euskara normalizatu dadin behar duen plan estrategikoaren finantziabideak erdiestea. Egitasmo hau aurten bakarrik egingo dela azpimarratu nahi du Kontseiluak.

Kanpaina hau abenduan egindakoa bezain arrakastatsua izan dadin, Kontseiluak lan munduko eragile askorengana jo du. Erantzuna nahiko ona izaten ari da, batez ere kooperatiben munduan, non langilegoaren erdiak bere partehartzea ziurtatu duen. Hala ere martxoaren lehenengo astera arte eskuhartzearen datu zehatzak ez dira plazaratuko.

Kooperatiben mundutik aparte enpresa guztietara heltzea ia ezinezkoa da. Horregatik, langileek ekimen

honetan parte hartzeko aukera izan dezaten, Kontseiluak gutunak bidali ditu batez ere hauteskunde sindikalak egon diren lantokietara. Kanpainaren informazioa zabaldu eta, honekin batera, langileek sinatu beharreko orriak banatzea enpresa hauen zuzendaritza batzordea eta enpresa komiteen eskuetan dago. Horretarako sindikatuekin egin lana funtsezkoa izan da. Honekin lotuta joan den hilean Euskal Herriko 15 tokitan ordezkari sindikalekin batzarrak burutu ziren, non ELA, LAB, STEE, ESK, CCOO, ANEL, ASLE, MCC, Confesbaske eta EUDEL sindikatuek baietza eman zioten akordio honi.

BESTE ERAGILE BATZUK

Lanbide liberaletan dabilzanek, baita ikasleek ere, parte har dezakete ekimen erraldoi honetan. Lehenengoek akordioaren orria sinatuz eta bigarrenek aterako diren bonoak erosiz.

Posible da zure lantokian ordezkariak sindikala ez izatea eta akordio honetan esku hartu nahi izatea. Horretarako Bagare Euskal Tokira jo, sinatzeko orriak bertan baitaude. Gero enpresan eman eta beste langileei bezala zure diru ekarpena otsaileko nominatik kenduko dizute.



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
 Artapadura, 11 - Apdo. 355
 Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

tokieder ikastolan **Euskaraz biziz,** euskararen normalizaziorantz



TESTUAK: RAUL SAEZ DE BURURAGA ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

Toki Ederren denbora osoan euskaraz bizitzea posible al da?

Beti eta betidanik izan da posible. Gure proiektuan garrantzi handia ematen zaie pertsonen arteko harremani. Horrexegatik funtsezkoa ikusten dugu umeak ikastolan daudenean jende guztiarekin euskaraz egitea. Ikastola da euskararen esparrua, baita ikastolatik kanpo ditugun eremuak ere; patioan, jantokian, ekintza osagarriak egiten dituztenean, euskaraz dira hartu-emanak.

Zuen ustez zergatik da hain garrantzitsua ikastolako langile guztiak euskaldunak izatea?

Ez da gauza bera ikastolako autobusean elkarrizketa euskaraz ala erdaraz mantentzea. Batzuei behar bada ez zaie axola, baina gure ustez hau ere garrantzitsua da; euskaraz izanez gero umeek badaukate *chipa*

Toki Eder Ikastolak bere langilego guztia euskalduna izatea defendatzeagatik eraso larriak jasan behar izan zituen ikasturte honen hasieran. ikastolak langile erdaldu bat ez onartzeagatik jazarpen mediatiko gogorra sufritu zuen. Denboraren poderioz espero dugu zauriak orbaintzea eta ikastola honek bultzatzen duen lan ederra inolako oztoporik gabe garatzea. Ikastolaren benetako egoeraz eta sortu zen arazoaz, ikastolako Kontseiluaren izenean, irakasle eta gurasoen organoa, ikastolako zuzendariarekin eta normalkuntzarako arduradunarekin mintzatu gara.

jarrita euskaraz egiteko, zenbait orduz edota denbora guztian. Atezainaren kasuan, adibidez, klasean klariona bukatzen bada ez da gauza bera euskaraz edo erdaraz eskatzea, umeak *chipa* aldatu behar duelako. Alde horretatik euskara zein erabilera maila nahiko altua dela esan daiteke, eta beste ikastola batetik irakasleak etortzen direnean honetaz jabetzen direla; euskaraz edozein tokitan egiten dela, bai pasabideetan, patioan, leku guztietan... Badakigu zenbait umeak, zailtasun handiagoa

Gurekin zegoen atezaina institutu batera bidali zuten, beste pertsona bat bere ordean jarritz

durenak, gainean ez bazaude erdaraz egiten dutela. Hori ez dugu ukatzen inolaz ere. Baina mantendu egin dugu azken finean izpiritu hori.

Noiztik dator arau hori?

Ia, ia hasieratik. Garai batean, orain hamar urte baino gehiago, gurasoak urte betez aritu ziren ikastola garbitzen eta garbitzaile guztiak euskaldunak izatea eskatzen zuten. Geroago Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin hitzarmen bat sinatu, eta hortik aurrera garbitzaile eta atezainak euskaldunak izan dira



TOKI EDER IKASTOLA

beti. Gaur egun jantokiko arduraduna zein begiraleak euskaldunak dira, autobusetako arduradunak ere bai, garbitzaileak, atezaina...

Orduan zergatik sortu zen ikasturte honen hasieran arazo ospetsu hura?

Arazoa lehenagotik dator. 1998ko hasieran bost ikastolatako langilegoa, gurea barne, Udalaren menpe geratu zen. Ordura arte Eusko Jaurlaritzak arduratzen zen langile hauek, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ezarpenarekin moldaketa bat egin behar izan zuten eta akordio batera heldu ziren Udalarekin.

Moldaketa hau aurrera zihoala ikusirik, bost ikastolek Udalaren aurrean garbi idatzita utzi nahi genuen zein motatako baldintzak bete behar zituzten gure eskolara bidali behar zituzten langileek. Gainera euskararen normalkuntzarako proiektu batean

**Klasean
klasean
klasean
amaitzen
bada
ez da
gauza
bera
euskaraz
edo
gaztekeraz
eskatzen
eskatzen,
umeak
chipa
aldatu
behar
du**



sartuta geundela adierazi genion, non helburuetako bat langilegoa euskalduna izatea zen.

Eta zer gertatu zen gaia hainbeste korapilatzeko?

Gurekin zegoen atezaina institutu batera bidali zuten, orduan bere orde bestea pertsona batek etorri behar zuten... Ekaina aldean Udalak idazki bat bidali zigun gure irizpideak kontuan hartuko zituztela esanez, eta horren arabera, adierazi baldintzak beteko zituen pertsona bat bidaliko zituztela.

Irailaren 1ean lanposturako zain zegoen emakumeak ezin zuten elkarriketa arrunta euskaraz jarraitu. Guk euskaldun bat eskatu genuela azaldu genion. Emakume honek garbiketa lanak egin ohi zituen beste ikastola batean, eta aurreko egunean Udalak gure ikastolako atezain-garbitzaile lanpostua, hobetze-kontrataua, eskaini omen zion. Nahiz eta emakumeak lan finkoa zuten, funtzionari ez zenez, behartuta sentitu zen lan hori hartzera. Arazoa lehenbailehen konpontzeko asmoz egun berean, ordu laurden bat pasata,

Udaleko Mantenimendu arduradunarekin harremanetan jarri eta honek zinegotziarekin, UAKo Alfredo Gonzalez, hitz egin behar genuela esan zigun. Abisuak utzi arren, Alfredo

Gonzalez zinegotziak ez zigun deitu. **Eta hurrengo egunak?**

Emakumeak lanean jarraitu zuen umeak etorri arte; irailaren 9an etorri behar zuten. Berak garbiketa orokorra egin, eta gu bitartean egoera konpontzen saiatu ginen. Egutero deika, baina erantzunik ez. Arazoa korapilatzen hasi zela ikusirik, Eskola Kontseiluan erabaki zen umeak etorri arte elkarrizketak eskatzea; alderdiekin, sindikatuekin, zinegotziarekin... Zinegotziari egutero deitzen genion baina ez zigun erantzuten.

Erantzunik ezaren aurrean zer erabaki hartu zutenen?

Funtzio Publiko Saileko zinegotziak arazoa konpontzen ez zuela ikusirik, emakumeari ikastolako giltzak kendu eta Mantenimendura bidali genuen, ea horrela gurekin esertzen ziren hitz egiteko. Eskolako Kontseiluaren agindupean idazki bat bidali genuen Mantenimendura, langile horrek ikastolak jarritako baldintzak ez zituela betetzen adieraziz.

Eta zein izan zen jasotako erantzuna?

Ez ziguten erantzun. Alfredo Gonzalez zinegotziak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariare-

HAUEK ERE BAI...

 MIREN GOJENOLA Aitzakia	 JOHN PATRICK Profesorea	 PATXI EUZI Profesorea	 MARTA HERNANI Eskolako zuzendaria	 XABIER EUSKITZE Beltzueko zuzendaria
 TXETXU UGALDE Kontseilaria	 DIJAR ORESA Bostak eta bostak zuzendaria	 JOSE ELORRIETA Zuzendaria	 JURGEN LANGE Zuzendaria	 FERMIN MUGURUZA Zuzendaria
 ANDOLIN EGUZKITZA Eskolako zuzendaria	 MAITE OSABA Eskolako zuzendaria	 ALFREDO ELORIZA Profesorea	 JOSE MARIA ARRATE Profesorea	 GARBINE PETRIATI Profesorea
 BENITO LERTXUNDI Profesorea	 ZIORZA SARRIONANDIA Eskolako zuzendaria	 ELENA ANDUEZA Profesorea	 MIKEL LASKURAIN Profesorea	 ALAIN MICHEL Profesorea

...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!
izena eman
euskarari eta barnetegietan

Sagardotegia

ITVIRRIETA

ARRAGA AUZOA · Tfnoa. (945) 44 53 85
ARAMAIO

kin bildu beharrean, lehenengo momentutik prentsara jo zuen. Zinegotziaren bitartez ikastolako zuzendariari espediente bat irekitzea eskatzen zen. Hurrengo egunean ikastolan prentsa guztia geneukan. Guk komunikabideetara prentsa oharrak bidali bagenituen ere gure ahotsa ez zen plazaratu, egia eta benetan gertatutakoa kutsatu zela-rik.

Honen aurrean zer egin zenuten?

Lanean jarraitu. Atezain lana inork betetzen ez zuenez, irakasleok egin genuen. Batzuk ikastolara lehenago etorri, beste batzuk berandua-gero ateraz... Bulego lana, bekak... dena elkartu zen, baina ikastola ez da inolaz ere gelditu. Guretzat lan handia izan da. Guraso batzuen laguntza ere jaso genuen.

Eta lan diplomatikoa nondik nora joan zen?

Sindikatuarekin bilera bat eskatu genuen Udaletxean. Arrazoia ematen ziguten. Lanpostua bete zezaketen langile euskaldunak bazeudela jakin genuen. Udalak, nahi izanez gero, bazeukan hainbat irteera baina une horietan ez zuen ezer egin, hauteskundeak hor zeuden eta. Egun berean sindikatu, zinegotzi eta alderdi politiko guztiekin beste bilera bat izan genuen. UAKo zinegotziak hanka sartu zuela onartu beharrean, prentsara deitu zuen berriro ere emakumea mehatxatu genuela esanez. Gure nagusiarekin, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako ordezkaria, hitz egin beharrean prentsara deitza ez da oso logikoa.

Eta nola konpondu zen arazoa?

Guri arazoia emanez. Hauteskundeak igaro ondoren irtenbide bat beharrezkoa zela ohartu ziren. Gasteizen Eusko Jaurlaritzak duen normalizatzarako proiektuaren betebeharrak, hots, langilego guztia euskaldun izatea, betetzen ditugun bakarrak gara. Lege polit hori bete

nahi izateagatik hola-ko egurra jasotzea ez da bidezkoa.

Zer ondorio dakar ikastolarako arazo honek?

Aurrematrikulazioan ez dakigu zer gertatuko den, beldur gara, norbaitek pentsa baitezake ikastola istilutsua dela. Baina gu ez gara liskartiak, geneukana zaindu nahi izan dugu, ez genuen atzerapausorik eman nahi. Gatazka bila bagindoaz lehenengo momentutik sekulako ezabaida sor genezakeen eta ez geniokeen langile horri ikastolara sartzen utziko. Aitzitik elkarriketarako bideak ireki genituen baina ez ziguten era berean erantzun. Etorkizuna eduki badaukagu, gure inguruan etxebizitza berriak eraikitzen ari dira... Oso egoera normalizatuan gaude eta espero dugu arazorik ez izatea. Ez honelako gai batengatik, behintzat.

Zer esango zenieke gurasoei zuen ikastolan izena emateko?

Ikastolako hizkuntza euskara dela, egiten diren ekintzak guztiak euskaraz direla... Adibidez, ez gara izotz pistara joaten begiraleak erdaldunak direlako, museotan gidari euskaldunik ez badago ez gara joan ohi... Euskara normalizatua dago gure ikastolan. Gure gizarte elebidun honetan gure



Gure ahotsa ez zen plazaratu. Egia eta benetan gertatutakoa kutsaturik geratu zen.

umeen-
g a n
soziolin-
guistikoi
ki deso-
rekak sor
ez daite-
z e n ,
autobu-
s e t i k
igotzen

direnetik ikastolatik joan arte euskaraz mintzatzen da. Elebidun orekatuak izateko hemen beti egin behar dugu euskaraz. Esan dezakegu gurasoak umeek lortutako mailarekin pozik daudela.

T Langile guztiak euskaldunak
e IKASLE GUZTIAK EUSKARAZ
T O K I E D E R I K A S T O L A



Zinea euskaraz TINKO, naturaltasunez

Zinemagintzako multinazionalak Katalunian eta katalanaren aurrean egindako plantoak egunkarietako lehen orrialdeak betetzen dituen bitartean, euskara zinema aretoetara eramateko ekimen baten berri izan du Geu Gasteizek. Donostiako Tinko Euskara Elkarteak bost urte darama haur eta gazteentzako pelikulak euskaraz bikoizten eta zineetara eramaten. Esan beharra dago, gainera, Tinkok itzulpen eta bikoizketa naturalak dituela helburu, eta irizpide honekin aritzen direla lanean bertakoak.

1 993an ekin zion Tinko Euskara Elkarteak bere jarduerari. Hasi helburu zehatz batekin hasi zen lanean: euskara zine areto komertzialetara eramatea. Bikoizketa lanean hasi aurretik azterketa bat burutu zuen elkarte donostiarrak helburua posible ote zen eta zergatik ez zuen inork artean egin jakiteko. Marian Galarraga elkarteako presi-



EUSKARA ELKARTEA

denteak azaldu duenez, bi arrazoi daude euskarazko bikoizketarik ez egiteko; bata ekonomikoa, etekina oso zalantzakoa baita, eta bigarrena ideologikoa, *nagikeriagatik; horretan hasi behar badira...*

Oztopoak, balizko ikuslegoa eta aukerak aztertuta lana haurrekin egiten hastea erabaki zuten. Zinea euskaraz entzuten ohiturarik ez dagoenez, txikitatik landu beharreko zerbait dela uste dute Tinkon. Bestetik, eskola eta ikastolek lan egiteko lehengaia eskainiko zietela kasik ziurtzat jo zuten, eta hala izan zen. Tinkok ikastetxeetara eramaten duen plangintza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak onartu eta diruz lagundutakoa da.

Bikoizketak egiteko Tinkok ez ditu bakarrik multinazionalak banatu filmak hautatzen, asko Suitza, Erresuma Batua eta Estatu frantzesen ekoiztutakoak dira, maiz Estatu espainiarreko areto komertzialetara iristen ez direnak eta oso kalitate

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945 26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

itzulpen
eta
euskara
zerbitzuek

EL BAR Kutxi

eguneko

handikoak, horrela, gaztelera ikusiko ez diren filmak euskaraz ikusteko aukera dago.

Eskolei filmez gain, Durangaldeko Mankomunitateko Droga-menpekotasuna ekiditzeko Elkartearekin batera egindako unitate didaktikoak eskaintzen dizkiete. Horrela filmaren edukinarekin bat datozen hainbat gai landu ohi dituzte era positibo batean, 7 eta 17 urte bitarteko gazteekin: elkartasuna, ekologia, droga-menpekotasuna... Guztia nortasunaren garapena bultzatzeko xedeaz.

Euskara aisialdirako hizkuntza

Arabako eskolekin ere lan egiten dute eta A ereduarekin ezusteko ederra hartu zutela gogoratu du Marianek. A eredukoekin filma ikusi aurretik ere lan egiten dela azaldu du, filmaren gidioa zatika irakurri eta ulertzen ez dituzten hitzak azaltzen batez ere. Tinko Euskara Elkarte-ko buruak oso pozgarria da A ereduko haurrak zinematik ateratzean dena ulertu dutela eta ezin alaiago ikustea dio. Horrela, gainera, beste gauza bat lortzen da... Haur eta gazte batzuek euskara eskolarekin baino ez dute lotzen; ikasketak euskaraz, dibertigarria den guztia, erdaraz.. Zinemaren bidez euskara aisialdiarekin lotzen dugu erarik atsegin eta errazenean.

Arabako eskolekin lan egiteko Araba eta Gasteizko erakundeekin laguntza izan du Tinkok. EAE mailan oso harreman ona dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin,

Inazio Oliverik ardura hartu zuenetik izugarritzko bultzada hartu du gure elkarteak; dirulaguntza eta laguntza teknikoa jaso ditugu bai bikoizketak aurrera eramateko bai unitate didaktikoak egiteko ere. Erakunde bereko Kultura Sailarekin, berri z, oso beste-l a k o a k dira gauzak, kontua ez da laguntzarik ematen ez digutela, oztopak jarri eta kompetentzia egin digutela

baizik. Kultura Sailaren iritziz oraindik ez da euskara zine areto komertzialek eramateko ordua iritsi. Ohitura faltaren aitzakian Kultura Sailan arlo hau ez dutela gehiegi landu salatu du Galarragak: eta egin dutenean ez dute oso serio egin; ia promoziorik egin gabe, eta emaitzak eskasak izan dira...

Ahal den heinean erakundeekin babesa izatea garrantzitsua da Donostiako etxearentzat. Izan ere, EAEn bakarrik ez, Euskal Herri osoan egiten dute lan, erosten ditugun kontratuetan zazpi herrialdeetarako eskubideak ditugula jartzen du argi eta garbi. Eta Iparraldean lan egitea, euskara ofiziala ez dela kontuan hartuta, ez da batere samurra izan ohi.

Legezko arautzea

Katalunian aretoetan ikusiko diren filmen artean katalanezko gutxieneko kopurua legez ezarri izanaren ideari buruz galdetuta, Marianek



Gaztelera
ikusiko

ez
diren
filmak
euskaraz
ikusteko
aukera
ematen
du
Tinkok

gehiegi gustatzen ez zaiola aitortu du. Ikusi duzu, multinazionalak planto egin dute. Ezin daiteke esan zer den egokiena, baina niri neuri egokiago iruditzen zait apurka sartzea, komeni zaiela konturatu arte... Tinkok bikoiztutako filmen ikasleak bereziak dira, baina ikusi areto normalean ikusten dira pelikulak, eta aretoetako jabeekin sekulan ez dugu tratatu berezirik egiten, ez diegu gehiago ordaintzen euskarazko pelikula bat jartzeagatik. Eta sarrera kobratzen dugu, baina sinbolikoa da, zeren diru horrekin ez baitira gastuak betetzen.

Enpresa banatzaileekin esperientzia badute Tinkokoekin eta lan sakona behar dela diote: Donostian Warne-



GUREA

jatetxea

Konstituzio plaza, 10
Telefonoa: 24 59 33



XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ



JATETXEA

H I U A

Aitzogile (KUTXA), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ



EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegiririk zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ



OKOIA!

arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

rreren areto bat euskarazko filmetarako beti uztea lortu dugu, eta duela urte batzuk ez zuten horretaz ezer ere jakin nahi... Are gehiago, hamar urteko epea jarri genuen horrelako zerbait lortzeko.

Bide luzea

Bide luzea egiten du filmak jaiotzen denetik euskarazko bertsioa ikusleen aurrean dagoen arte. Bide luzea, garestia eta nahikoa nahasia. Filmak Suitza eta Alemanian erosten dituzte gehienbat, bertan izan duten arrakasta eta bertako gazteen erantzunaren arabera. Film horiek 5.000.000-6.000.000 pezeta balio dute, eta ez da gehiegi, Disneykoen salneurria 14.000.000 pezeta ingurura igotzen da eta. Filma erosi eta gero, itzulpena eta bikoizketa egiteko ordua dator.

Bikoizketa REC enpresak -Euskal Herrian euskarazko bikoizketak egin

**Filmaren edukina-
reklin bat
datozen hainbat
gai landuko
dituzte haurrek:
ekologia,
elkartasuna,
drogak...**

ohi dituen entpresa bakarra omenegiten die beraiekin duten akordio bereziari esker, bestela ezin izango genituzke beharrezko diru eta bitarteko guztiak bildu. Bikoizketa egin ondoren kopiak behar dira, eta hauek pelikularen jatorrizko herrian egin behar direnez, esku gehiegik ikutzen dute produktua, jarraipen estua egin behar da. Normalean kopiak egiten dituen ez da euskalduna, horregatik izugarritzko astakeriak egin ditzakete irudia eta soinua ondo uztartzen ez badi-tuzte...

Tinkok bertsio bikoiztua eskuetan duenean zinema aretoetan bi urtez erakutsi dezake, ondoren telebistan emanaldi pare bat egiten dute eta gero bideo zintak egiteko aukera dago, baina gutxienez 2.000 kopia egin behar dira eta ez gaude 'juergetarako', Marian Galarragak aipatu legez.

TESTUAK: LEIRE LPZ. DE ABERASTURI



JACK, AMAZONASKO
ERREGE

BIG

ERREBELDE BATEN
EGLINKARIA

ARABAN IKUSI AHAL IZANGO DIREN FILMAK



AGURAIN	martxoak 12	martxoak 23	apirilak 28
AMURRIO	martxoak 12	martxoak 22	apirilak 27
LAUDIO	martxoak 11	martxoak 23	apirilak 29
GASTEIZ	martxoak 9-10	martxoak 21-22	maiatzak 6-7

"...seeing in the rain" ("European ikusten")

zeren eta Multilens* ukipen-lenteen packa erostean, zira alderanzgarri hau oparituko baitizugu.

14.900 pta. besterik ez



BAUSCH & LOMB



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik: 5.00 - 8.30

*Hilero aldatzeko diren 6 Multilens lentziketako 2 kaxa eta 360 ml. soluzio bakarreko 2 pote barne. Eskaintza honek izakinak ahistu arte balio du. Bezeroaren arretarako telefonoa: 900 34 35 36. www.multiopticas.com

ARABAN euskaraz txotx egiteko aukera paregabea



Baratxuriak, letxugak, babarrunak eta intxaurrez aparte kiwiak ere ematen dituen lurrak zinez erakargarria behar du izan. Gauza askorengatik Aramaio desberdina da, beharbada lasaiagoa, hurbilagoa, ederragoa... Urtean zehar bisita bat baino gehiago merezi du bailara honek eta sabela betetzeko orduan non eta Iturrieta sagardotegian.

JANTOKIA:

100 LAGUN INGURURENTZAKO TOKIA. AINTZINAKO AZPIEGITURA.

EGURRA ETA HARRIA. OSO EDERRA.

MENUAK:

SAGARDO GARAIAH OHIKO MENUA. GARAITIK KANPO PLATER ANITZ.

KAZOLATXOAK ERE EGITEN DIRA, DIRU GUTXI GASTATU NAHI IZANEZ GERO.

APARIKALEKUA:

URTE OSOAN IREKIA.

Urtarrilaren 21ean Aramaio-ko Iturrieta sagardotegiko kupelak lehenengo aldiz ireki ziren sagardoaren garaia hasiera emateko. Sagardo jaioberriaren lehenengo txotxa mustatzeko bertan antolatu harrera jaietan izandakoek ondo baino hobeto pasatuko zuten seguraski.

Egun sagardotegi ohiko giroaz gozatu nahiez gero, jadanik ez da zertan tokitara joan; Gasteiztik hogeita hamar kilometrora, naturaz eta mendi zoragarriz inguratua, Iturrieta sagardotegiko lagunek behar den guztia, janari gozoa eta giro alai, eskaintzen baitiote bertaratzen den orori.

Txotx garaian bakailaoa era bitxiaz prestatua, arraultzopil izugarria eta txuletoi ederra gehi gazta, intxaurreak



eta irasagarria, hau da, betiko menua, eskainiko da sagardotegi honetako mahaietan. Hala ere, Iturrietako sukaldea urte osoan dago piztuta, sagardoaren garaia igaro ondoren mimoz kozinatu platerak dastatzeko aukera emanez. Bestela aztertu honako hau: Orein azpizuna gazta saltsa bereziaz ukitua, txitxarroa plantxatik pasata ikutu berezi bate-

Era
tradizionaleko
sagardotegi
bakarra
da
Iturrieta
Arabian

kin, budina, inoiz dastatu ez diren piper beterik gozoenak... Hamaika aukera daude gure produktuak erabiliz bapo geratzeko. Eta postreez aritzen bagara, arazoak izango dituzue bat hautatzeko; sorbetea sagardoz egina, euskal pastela intxaurre saltsarekin, sagar tarta... Aholku bat: lagunaren artean ezberdinak eskatu eta denetarik frogatu!

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea

Aiztogile (KUTXI), 23



ARTEPAN

Artisau
Okindegia
eta Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



MIKEL
DELIKA

BEIRATE
ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

NOLA HELDU



Gasteztik Aramaiora joateko bide zuzena Legutiotik igarotzen da, Kurtzeta mendatea zeharkatuz. Kotxez zein autobusez hogeita hamar kilometro eginez haraneko "kalea" den Ibarra herrira iristen da. Aramaioko baserritarrek "goazen kalera" aipatzen dutenean Ibarra jeisten dira, bertan giza harremanak lantzeko parada islatzen baita.

Ibarra herritik bailarako bazter guztietara joan daiteke. Sagardotegira heltzeko Etxaguen eta Gantzagako auzoetarako errepidera joz, Arraga aldera doan bidegurutzea hartu behar da. Auzo

honetara heldu baino lehen errepidean dauden karteletan esker, malda aldapatsu batek igotzen den bidea hartu eta sagardotegi bihurtutako Iturrieta baserrira heltzen da. Ez dago inolako arazorik iristeko.

Etxea bi zatitan dago banatua, alde batetik etxe bizitza eta bestetik sagardotegia bera, antzinan baserriko ikuiluak zirenak.

Kanpotik, eguraldi ona egiten badu, ikuspegia paregabea da benetan. Teilamendi, Murugain, Ipizte, Orixol zein Anboto mendiak eder altxat-



zen dira haranaren gainetik, askotan "Suitza txikia" deritzana hortik inondik baino ederrago ikusiz. Gainera barruko mahai gainean zain dauden plater gozoeekin..., nola ez preziatu Aramaio eskaintzen diguna?

Animatu eta joan, zinez eta minez merezi du eta.

Sagardoa eta jaia

Eta sagardoaz, zer? Iturrieta sagardotegiko jabeetako bat den Juanjo Peciñaren hitzetan aurtengo sagardoak hartxidura ona izan du, azido gutxiago baina gorputzarekin. Prentsaketa izan ezik, prozedura oso baserrian bertan egiten da. Gainera Peciña anaiek sagarrondoak landatzeari ekin nahi diote Aramaion, bai bertako baserritarrekin hitz eginez bai eurek zuzenean landatuz.

Argi dago sagardo apur bat edan ondoren giroa alaituago suertatzen dela eta ondo igarotzeko gogoia kanporatzen dela, gure zaharrek bazkalosteko abesteko ohitura galtzen hasi dela leporatzen digute... Iturrietan, berriz, aztura hori berreskuratzen ari gara, adierazten du Juanjok. Horre-

Peciña anaiek izan dira Iturrieta Sagardotegiaren proiektua gazuzatu dutenak



xegatik trikitilariak, bertsolariak... sagardotegira hurbiltzera animatu nahi dituzte Iturrietako lagunek, edozein unetan jaia sor daiteke eta. Bestela Juanjoren anaia, Beni, akordeoiarekin doinu eza-gunak jotzeko prest azal daiteke edonoiz...

Gainera sagardotegiaren kanpoko aldean uda partean ekitaldi kultural txikiak emateko tokia dute prestatua. Orduan ez harritu egunen batean bertan bazkaltzen zaudetelarik kantautore bat zein antzerki talde bat eszenatokira igotzen bada.

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisan lanak, lorategi eta barrualdeko-proiektuak egiten dituzte

AZAROAREN 15A ARTE

%30 eta %50eko beherapenak

Erremerari (HERRE) 38, beheha tfnoa.: 25 25 03 01013



KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

157
geu gasteiz



Proiektu oso zabala

Gasteiztarrok oso gutxi ezagutzen dugu gure Araba. Gure lurraldean leku zoragarriak daude, ezkutua eta ederrak. Horieta bat zalantzarik gabe Aramaio da. Ikuspuntu honekin abiatu ziren Peciña anaia gasteiztarrok beren bizitza proiektua aurrera eramateko orduan. Aramaion aurkitu zuten nahi zutena; giro euskalduna, herrikoia eta lasaia. Ondoren ohiko giroa bultza-

Kulturak
ere
badu
Iturrieta
Sagardotegian
lekua.
Asteotan
Xirika
eskultoreak
bere lanak
erakusgai
izan
ditu
bertan.



tu nahi duen Araban dagoen sagardotegi bakarra jaio zen.

Lagun baten bitartez baserri bat salgai zegoela jakin eta bi urte luze iragan ondoren 1997ko abenduan hasi ziren Iturrieta-Bengoia baserriko lehenengo berritze lanak egiten, zeinak zortzi hilabetez luzatu baitziren. Hasierako egitasmoak animaliekin zeukan zerikusia, baina azken bolada honetan halako ekimenetarako dirulaguntzak murriztu direla ikusirik, ziurrena bizitza aurrera ateratzeko sagardotegiaren egitasmoa zen.

Nolanahi ere negozioa baino zeozer handiagoa da Iturrieta sagardotegia. Bestela Dato kalean eraiki genezakeen sagardotegia, azpimarratzen du Juanjok. Haiek bizitza horrela bizi nahi dute, mendi eta euskaldunen artean eta bisitarietzako hainbat ekimen eraman nahi dituzte aurrera. Txalaparta jotzea, zaldiz ibiltzea, Aramaio udalaren laguntzaz ibilbide batzuk prestatzea, ostatu ematea... Gaur egun ametsak dira... Urteak joan, urteak etorri errealitate bihurtuko ote dira? Denborak esango du! Dena den, Peciña anaiek ez dute inolako presarik.

TESTUAK ETA ARGAZKIAK:
RAUL SAEZ DE BURUAGA



Bakailao eta perretxikoz beteriko kanutiloa piperrekin bi saltsatan (Pil-pil eta bizkaitar erara)

OSAGAIAK:

Kanutiloak: 250 gr irin, 25 gr gurin, 125 zl. esne, gatza. Piperrada: Kipula bat, 3 piper berde, piper gorri bat. Kanutiloak betetzeko: Baratxuria, kipula bat, piper gorri bat, 200 gr perretxiko, 300 gr bakailao, irin apur bat, baso erdi bat esne, gatza. Saltsak: Pil-pil, bizkaitarra.

NOLA EGIN:

Kanutiloak egiteko osagai guztiak bol batean nahastu egin behar dira. Mahai batean ondo oratuz gero, luzatu eta moztu tiratan. Moldetan jarri ondoren frijitu.

Buztinezko lapiko batean olio berotzen ipini. Lehenengo baratxuria bota, gero kipula, piper gorriak eta perretxikoak. Hau guztia egindakoa bota bakailaoa eta irin apur bat bukatzeko. Ondo nahastu ondoren baso erdi bat esne gehitu eta nahasi berriro. Kanutiloak osagai honekin bete. Bero daitezen labean sartu.

Mahaian aurkezteko plater batean txukun jarri bai kanutiloak zein piperrada eta bi saltsak. On dagizuela!

berri berriena
datozen denborekin bat



HELBIDE
BERRIA

geugaste@grn.es

g e u g a s t e i z a i d i z k a r r i a

piti-pata

txikiaren orrialdeak

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA



TXIRRI
MIRRI
ETA
TXIRIBITON

BARRE
EGIN



Garbiñek 10 urte ditu

Garbiñe eta Bobby

Bobbyk 2 urte ditu, Garbiñe ez da inoiz bere ondotik aldentzen eta oso atsegina da... Nor da? Txakurra, katua... Ba ez!

Japoniar mundutik sortu asmakizun liluragarria... Bai, bai, hori!, *tamagochi* deitutako maskota, jostailua... Batek daki!.

Asteazken zehar Garbiñek ikastolara joan behar, eta ez dio Bobbyri jaramonik egiten, baina asteburuetan lan handia izaten du berarekin. Makinatxoaren soinua berezia entzun eta ziztu bizian gozokiren bat edo ematen dio baretu nahian. Horrela jarraituz gero, Garbiñe *tamagochiak* zaintzeko ikastaroak antolatzen hasiko da, honetan trebea dugu eta!

HILEKO HILEKO HILEKO **LAGUNA** HILEKO HILEKO HILEKO



Barre egin

Txirri, Mirri eta Txiribiton

IZ DISKETXEA, 1998.

Hiru euskal pailazo hauen ibilbidea luzea eta kalitatezkoa izateaz gainera, geldiezina da. Berriro datoz plazara eskaintza eder berezi batez: *Barre egin* diskoa. Egia da lehenago ere disko asko eman dituztela argitara, baina orain dakarten gonbitea apartekoa da. Izenburutik hasita, beren lanbideak hainbeste urteren buruan ekarri dien jakituria bildu egin nahi izan dute obra borobil eta atsegin batean. Aspaldiko kritikari batek idatzi zuenez, *hirukote hau ez da barre eragitearekin konformatzen, haurtxoentzat eta helduentzat ere balio handiko mezuak komunikatzen dituzte*. Eta hori garbi ikusten da abesti bakoitzari ezarri dizkieten aurkezpen hitz laburrak irakurrita.

Plazaratze honekin batera, bestetik, berriro hasiko dira herriz herri ibiltzen mezu hauen inguruan prestatu ikuskizun esanguratsu batez. Eta ikuskizun horren mamia disko berriaren abestiekin batera *Tortolika eta Tronbon* marrazki bizidunetako filme laburrak osatuko du. Euskal Herriko haurrentzat berriro aukera atsegina martxan. Ikusi nahi dutenek deitzea dute eta hantxe izango du hirukotea!!

ZER DA ZURETZAT... MARTIZTARRAK

Zunize



Martiztarrak ihauterietan baino ez ditut ikusi. Aurpegi itsusia daukate eta eskuetan hiru hatzamar soilik. Nahiz eta guregana ez etorri beraien lagunak gara.

TESTUAK: Itziar Uriarte

ARGAZKIAK: Edorta Sanz

Guk euren planetan ezin dugu arnasarik hartu. Noizean behin lurrera etortzen dira baina ezin ditugu ikusi.



Aitor

Haiek planeta gorrian bizi dira. Hiru begi eta hiru hatzamar dituzte eta OHE-etan (OVNI; Objektu Hegalari Ezezaguna) planetaz planeta joaten dira.



Eneko

geugenjeim

ODON DE APRAIZ IKASTOLA (4-5 URTE)



Ania




Xabier



Xabier

Aritz

Jon





kide

APAINDURA

Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

k



Adi, matrikulatzeko azken egunak!

kakarakak



HABEren dirulaguntzaz
antolatuz

kurritxak



miaurak



IKA

baina euskaraz

EUSKALTEGIAK

- * 2, 3 eta 5 orduko ikastaroak
- * Maila guztiak
- * Ega, Mintza eta Sakontze

GASTEIZ EUSKALTEGIA
Errege Erregina Katolikoan kalea, 15 945 28 89 22
PINTO EUSKALTEGIA
Pintore kalea, 74 945 28 97 80
ZALDIARAN EUSKALTEGIA
Badaia kalea, 25 945 24 49 05



Milaurtekoaren amaieran...

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

PRINCIPAL ANTZOKIAN
Otsailaren 27an, Larunbata
Arratsaldeko 8etan

SARRERAK SALGAI

Aldez aurretik: Bagare, Axular, Arriaga
liburudendetan.

- GEU elkarteko bazkide eta GEU GASTEIZKO harpidedunentzat..650pta
- Arrunta.....850pta
- Egunean bertan (Principal antzokian).....1000pta

Korrika

Omenaldia



**ANTOLA
TZAILEAK**

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

GEU
GASTEIZ

**BABES
LEAK**



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia

LAGUNTZAILEAK

El Periódico de **Alava**

54 CANAL GASTEIZ TELEVISION

Egunkaria



Arabako Bertsozale Elkartea
RADIO VITORIA

DELA

Bagare
EUSKAL TOKIA

gara

Judimendi, hain gertu axular

LIBURUDENDAREN ESKUTIK

Toti Martinez de Lezeak idatzi duen lehenengo eleberria, La calle de la juderia izenekoa, XV. mendeko Gasteizen girotua dago eta bertan bizi zen kristautasunera bihurtutako sendi judu-baten gorabehereak agertzen ditu. Amodio, gorroto eta mendekuen istorioa; behinola Gasteizko Alde Zaharreko kaleak zapaldu zituzten benetako pertsonaia eta gertakarietan oinarritutako giza istorioa.

Gasteizen jaioa izan eta familia gasteiztarra izanik, deigarria iruditu zitzaidan beti Judimendi izena, udako arratsaldeak igarotzera joaten ginen parajearen izena alegia. aitak azaldu zidanez, hark juduen mendia esan nahi zuen, Gasteizko juduen garai bateko hilerria izan baitzen. Hala ere, ez nuen haien askoz berri zehatzagorik jakin. Inolako aipamenik ez testu liburuetan, ez bestelako oroitzapenik, Judimendi bera eta *antzinako judutegiaren* aipamen zenbait ez bada; azken hori Barrenkal Berriari buruzkoa da, San Bizente Elizaren ezkerrean hiria osatzen zuten hiru kaleetako kanpokoena. Alabaina, juduak hainbat mendez bizi izan ziren Euskal Herrian...

Historia horretako pertsonaien bizitza nolakoa izan zitekeen irudikatzen duen ikuspegia eman nahi izan dut. Oso garrantzi

handikoa zen niretzat gure iraganaren alde ezkutu hori erakustea eta, hein batean, tolerantziaren aldeko lanean esku hartzea, baita gure historiaren zati bat hobeto ulertzen laguntzea ere, agian txikia, edo garrantzi handikoa ez bada ere, iraganeko zantzu ezabaezina den zatia hain zuzen. (Toti Martinez de Lezea).

Toti Vitoria-Gasteizen jaio zen 1949an; itzultzaile, TBko gidogile, txotxongiloen maneiatzaile, bidaiari, ipuinen idazle, liburuaren irensele, musikazale, Erdi Aroko Europaren zale... Baina batez ere Euskal Herriko historia eta tradizioak ditu gogoko. Gaur egun Larrabetzun (Bizkaia) bizi da.



Toti Vitoria-Gasteizen jaio zen 1949an; itzultzaile, TBko gidogile, txotxongiloen maneiatzaile, bidaiari, ipuinen idazle, liburuaren irensele, musikazale, Erdi Aroko Europaren zale... Baina batez ere Euskal Herriko historia eta tradizioak ditu gogoko. Gaur egun Larrabetzun (Bizkaia) bizi da.

TOTI MARTINEZ DE LEZEA
La calle de la juderia

Txartalo. 1998.
490 orrialde



TESTUAK: ESTITXU BREÑAS

HARKAITZ CANO...
Euskal idazleen ipuin erotikoak

Txalaparta
1998. 187 orrialde

Narrazio erotiko bana eskatu zitzaion zenbait idazleri, eta hamazortzi lanekin osatu da Euskal idazleen ipuin erotikoak hau. Tartean daude Basauriko *Euskarabila* Elkartek antolatzen duen sariketako ipuin batzuk ere. Denak euskaraz sortuak, bai izan ezik: Lucía Etxebarria azken Nadal sariarena, hain zuzen.

Izen handiko idazleak



eta hasi berriak, jakinduria eta freskotasuna, esperientzia eta gaztetasuna nahasten dira, gaiz zeren estiloz hain antza den liburu honetan. 13 gizonetako eta 5 andrazko. 18 luma hain intimoa eta hain unibertsala den alo-rra laiatzen.

ANA IRIGOIEN
frida kahlo

Elkarlanean. Biografiak.
1998. 128 orrialde

XX. mendeko lehen erdiko artean, aurrekoetakoan ez bezala, emakume bakar batzuen izenak dauzkagu gogoan. Izen gutxi, seguruenen artista izateko aukera askorik ez zutelako izan. Gainera, artista izan ziren horien lana ez da gehiegi zabaldu. Emakume horiek azken ehun urte hauetan erreferentzi puntuak



izan diren Europa eta Estatu Batuetatik kanpokoak badira, benetan harrigarria egiten da ezagunak izatera nola iritsi diren ikusteak. Frida Kahlo mexikarra emakume horietakoa da. (Julio Pardo).

MIKEL HOYOS
Euskal izenak

Xenpelar
1998. 205 orrialde

Ez da euskal izenen zerrenda hutsa, euskal izenen jatorriari buruz hamaika xehetasun aurkituko baituzte; nondik sortuak diren, nor eta noiz erabili zituen, zer esan nahi duten... Izen bakoitzaren atzean hainbat pasadizo eta elezahar ezkutaturik daude, eta horiek guztiak azaldu, argitu era ezagutzera eman nahi izan dizkizuegu, egindako ahalegin horrek zuen jakinmina asetzen lagunduko duen



ixtaropenean.

Euskal izen baten bila dabilen horrek, beraz, garai eta jatorri askotarikoak aurkituko ditu: batzuk euskal mitologiatik hartuak, beste batzuk erdi aroko testuetatik jasoak; S. Aranak euskaratuak ere badira mordoxka, eta jakina, ugariak dira euskararen baitatik azken urteotan sortuak.

IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 23 19 33

GASTEIZ

TXUSTA

TABERNA

ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

21

guz gasteiz

1996 urtearen hasieran Iñigo Ortiz de Zaratek eta Ivan Pachecok groove, jazz klasikoa, bossa eta blues-a nahasten dituen talde bat sortu zuten, The Boogaloos izena eman ziotelarik. Musikari ezberdinek lagunduta zenbait tabernatan eta klubetan hogeit bat agerraldi zertu eta gero, 1997an taldeak egonkortasuna lortu zuen, eta urte bete beranduago, 1998aren amaieran, hain zuzen, aurreneko diskoa kale-ratu zuten.



BOOGALOOS ERRITMOA ETA BEROA

Gabonetan ikusi eta entzun genituen Circulo aretoan. Aurretik ezaguna, eta gustukoa, genuen iazko udan Gasteizko "El Cantón de la Soledad" estudioetan gauzatutako diskoa. Ez zuten huts eman. Grabazioan dasta daitekeen latin, groove eta funk-aren arteko nahasketa lehergarria freskoago bilakatzen da eszenatoki gainean. Iñigo, gitarra eta organoa, Asturiasetik etorri zen bere hirian diskoa aurkeztera. Berarekin izan ginen berbetan.

Asturiasen bizi zarela kontuan hartuz, ez duzu batere erraza izango The Boogaloos talde gasteiztarrean parte hartzea, ezta?

Gauza bik bultzatzen naute The Boogaloos-ekin jarraitzera: alde bate-tik, gogoia, eta bestetik, bokazioa. Kontuan izan behar duzu Asturiase-ra duela gutxi joan nintzela, eta toki

ezezagun batean berriro hastera lan gogorra dela. Hiri honetan, Gasteizen, musikari dagokionez, nire mundu osoa dago. The Boogaloos denon egitasmoa da, denon taldea, uztea ez nuke batere gogoko izango. Hazten ari gara, eta nire ustetan The Boogaloos-ek etorkizuna dauka bai taldeari, proiektuari, musikari zein atera berria dugun diskoari dagokio-nez.

The Boogaloos ez da dantzarako talde arrunta...

The Boogalos ez da rock and roll talde tipikoa, ezta dantzarakoa ere. Rock and roll talde baten jarrera dugu, eta dantzari dagokionez ez dugu berbena, bakailao edo diskotekarik egiten. Gureak ez dauka mugarik.

Askotan The Boogaloos-en musikak entzuteko dantza egiteko baino aproposagoa ematen du.

Hasieratik oso gustura jotzen dituzun abestiak zureak egin behar dituzu

Lehenengoz, nik uste edozein musikak edota lanek ongi burututa egon behar duela. Dena den, musikari ez diogu izenik jarri behar, aukeratzen duena entzulea bera da, eroslea... Guk egiten duguna eskaintzen dugu, eta gero zuek, erosiz gero, erabaki behar duzue disko hori zertarako izango den: etxean



Argazki - Estudio
Eramun
Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

AMILAMIA
arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA
Aitzogile (KUTXI) kalean

lasai entzuteko baldin bada prime-
ran, dantzatzeko izanez gero, ongi
ere bai. Ezin dugu inoren
ordez deliberatu. Gaur
egun ez dago aproposena
den formularik musikan
aritzeko, horregatik arlo
desberdinek eskaintzen
dutena jaso behar da.
Gure jarrera, musikari,
musika nahasketa eta
ibili ohi garen zirkuito-
ek, denek batera, The
Boogaloos-en nahaste-
borraste berezia sortzen
dute.

**Zerikusirik al duzue 70 eta 80garren
hamarkadetako dantzarako musika
berpizte saioarekin?**

Ez. Disketxeak, une ezberdinetan,
entzuleengana soinu diferenteak era-
maten saiatzen dira: Frank Sinatra,
Led Zeppelin, disko-musika, soul-a,
erritmo latindarrak, klasikoa.... The
Boogaloos ez da sortu ardura komer-
zial batetik, gure maintetik baino.
Esan nahi dut hau ez zaigula kanpo-
tik etorri, baizik eta guk geuk nahi
izan dugulako sortu dela. Dantza-
rako musika aipatu duzu galderan,
baina guk ez dugu disko-musikarik
egiten, gurea funk, groove eta soinu
latindarrak dira; lehen esan nahaste-
borraste bitxi hura. Denak, kalitatez-
koa izanez gero, leku bat bete deza-
ke gure proiektu honetan.



Boogaloosen

lehen
diskoak
ez du
jendea
kulturizatu
nahi,
baizik
eta
soinu
ezberdinak
eskaini

**Eta zuzenean musika baino gehiago
eskaintzen duzue.**

Bai, ahal dugun guztietan ikuski-
zun zabalagoa eskaintzen
saiatzen gara: kont-
zerturainoko kaleji-
ra bat, eraunspen
tarte bat, *go-goak*,
Groove Collective
diskjockey-en lana,
olio lanparak, *perfo-*
mance txikiren bat...
Ikusten duzuen
ondo pasatzeko auke-
ra badago.

Ez duzue uste entzule-

**ok musika sinpleagoa bilatzen
dugula?**

Bi aukera dituzu: betikoari eutsi
ala, kalitate eta erritmoz sortu. Jen-
deari pentsarazten saiatzen gara.
The Boogaloos ikustera eta entzute-
ra datozenek, edota gure kontzer-
tuetatik aldegiten ez dutenek, agian
gauza berriak ikertu nahi dituzte...
zeren nahiz eta musika hau leku
batzuetan hedatuta dagoen, hemen
ez baita oso entzuna. Ez pentsa jen-
dea kulturizatu nahi dugunik, bai-
zik eta soinu ezberdinak eskaini.
Diskoari dagokionez, nik uste ent-
zun eta dantza daitekeela, eta irakatsi
ere irakatsi dezake.

**Zuen musika tresna batzuk ez dira
egun, aurregrabazio, elektronika
eta sampler-en garai honetan,
gehien erabiltzen direnak...**

Dantza eta elektronika elkarrekin
dabilta mendearen bukaerarantz.
Gizon-emakumeek betidanik dantza
egin behar izan dugu, baita tresna
elektronikarik ez zegoen garaietan
ere, jakina. Funky, groove edo blues
musikak ez dira modatik kanpo edo
atzeratuta gelditu. Elektronikari
heltzea aukera bat da, guk zuzenean
erabiltzen ez duguna, etxean sortze-
ko elektronikaz baliatzen garen
arren.

The Boogaloos zortzi musikarik osat-

**zen baduzue ere, diskoaren kredi-
toetan hamalau agertzen zarete...**

Taldea sortu zenetik hona Musi-
kari askok (musikari hitza letra
larriz!) lagundu diote taldea-
ri; Javi Antoñanak edo
Ricardo Urrutiak, besteak
beste. Gurea proiektu zabala
denez, parte hartzaile guz-
tiek euren emaria oparitu
digute, eta guk, noski,
eskertzen diegu. Zer ekart-
zen digu horrek? Dena.

**Soinu trinkoa eta sinesgarria
lortu duzue lehenengo lan
honetan.**

Diskoa gauzatzeko hiru osagai
erabili ditugu: geneukan dirua, estu-
dioak eta taldea. Diru arazoak zirela
eta, aldez aurretik ongi genekien
gehenez zortzi abesti grabatu behar
genituela. Uztailean abestiak eta
horien tenpoak aukeratu genituen.
Konponketak ondo landuta geni-
tuen estudioetara sartu baino lehen.
Taldearen gogoia handia zen, eta
elkarren arteko harremana, bikaina.
Nahasketak egiterakoan produktore
teknikoa nahi genuen estiloan mur-
gildu genuen, gure ustetan lan ede-
rra egin zuelarik.

**Nork erabaki zuen Use Me kanta gra-
batu behar zenutela? Zergatik?**

Taldeak erabaki zuen, beti gogoko
izan eta ondo jo dugulako. Hasiera-
tik oso gustura jotzen dituzun abe-
stiak zureak egin behar dituzu.

**Inprobisazioak lekurik izan al du
grabaketa honetan?**

Erritmoak oso landuta sartu ginen
estudioetara. Solo-ak, ordea, grabatu
aurretik oso entseiatuta baziren ere,
inprobisazioaz burutu genituen.
Oinarritzkoari ondo heldu genion.
Dena den, gure tankera honetan,
bero handiago eman nahi baldin
badiozu musikari, tarte bat eskaini
behar zaio bat-batekotasunari.

TESTUAK: TXABI ARNAL GIL



**MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK**

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

GASTEIZ
DIBUtec
Lanlazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
**Arte ederretarako...
behar duzun
guztia**
PAPERTEGI TEKNIKO A

285
gure gazteak



gaurkoak eta betikoak

rock'n'rolla-aren historia formato berrian



IZENBURUA: GET A GRIP

TALDEA: AEROSMITH

DISKETXEA: GEFEN

URTEA: 1993

80garren hamarkadan

Estatu Batuetan gertatu heavy eta pop-aren arteko harremanetatik AOR izeneko musika mota jaio zen; soinu gogorrak, merkataritza hutsea eta, maiz, kalitate eza nahastu zirelarik. Baina ez dezagun aztertu zutabe ahulez eraikitako musika hau, eta balia gaitzen sarrera honetaz Aerosmith taldearengan AOR-en eragina nabarmena dela esateko. Agerian dago ez ditugula inoiz gogoko izan, ez aipaturiko AORa, ez tankera horretan aritu eta aritzen diren taldeak, ezta Aerosmith-en AOR garaia ere. Hala ere, Bostoneko boskoteak garrantzizko lekua betetzen du rock and roll-aren historian 70garren hamarkadan gauzatutako lanei esker, eta oso gustukoak ez ditugun arren, baita AOR urteetan zertutako *Pump* eta jarraian aurkeztuko dizuegun *Get A Grip* izeneko diskoen bidez.

Aerosmith taldea estatubatuarra dugu erabat, bai musika estiloari zein jarraitzaileei dagokienez. 93garren urteko *Get A Grip* agertu arte urriak zituzten European lortutako arrakastak. 1989an *Pumpek* Erresuma Batuko bidea zabaldu zien, eta *Get A Gripek*, aldiz,

Ekialdeko Atlantikoaren merkatua. Baina kontuz ibili!, *Get A Grip* ez da Steven Tyler-en taldearen lanik onena, ez gure ustez behintzat.

Nahiago ditugu 70garren hamarkadan rock and roll-ari eta rithm and blues-ari begira egindako lanak, baina merkataritza arloa, kalitatea, eta kanta ederrak oso era dotorean nahastu zituelako, 93ko disko honek aipamen berezia merezi duelakoan gaude.

Eta *Get A Grip* osatzen duten kantak? Maila altuko abesti guztiak ezaugarri bera badute ere, erritmo ezberdinak entzun daitezke. Arinenak *Eat the Rich*, *Fever* eta *Walk On Down* kanten eskutik datoz, erdikoak *Living In The Edge* lagunduta, dantzagarrienak *Eat The Rich* eta *Shut Up And Dance*-enak dira, eta lasaienak *Cryin'*, *Amazing* eta *Crazy*-k ekartzen dizkigute, (bai *Crazy*, Aerosmith-en soinuak bazter guztietara eraman zituena).

Azkenik, gogoratu nahi dugu disko honen aurkezpen birak Aerosmith lehenengo aldiz (eta azkena) Euskal Herrira ekarri zuela, antzinako eta orduko abestiak jo zituztelarik. Ea nolako gertatu zen bostondarren zuzeneko? Bikaina!!

TXABI ARNAL GIL

gureak

Arabako taldeen zerrenda luzea

MARIA & OSSES

Ordubeteko folk ikuskizuna. Garrasiak, kondairak, sua, frenesi basatia, errealitatea eta ametsak nahasten dira, arimak ikustezinak eta entzungai diren gau magikoan.

KONTAKTUA

Sorginetxe 01194. Otazu (Araba)

1996. NINETEEN NINETY SIX

Hona hemen orain hiru urte Amurrión jaiotako talde bat. Ingelesez hitzak eta Neil Young, Silvio Rodriguez, Oasis, Bad Religion, Grand Pink, Ramones edota Su Ta Gar-en eraginak. Gazteak, oso gazteak; 17 eta 20 urte artekoak.

KONTAKTUA: 945 89 07 73 (Mario)

OBLIGACIONES

Obligaciones taldea punk-ari buruz mintzatzen denean, Stooges, Ramones, Dead Boys edota Misfits aipatzen dituzte, inongo lotsarik gabe rock and roll-ari ekiten zioten eta ekiten dioten taldeak, hain zuzen. Lehenengo CDa kalean aspalditik, eta bigarrena osatuko dituzten kantak bukatzeaz. Hau berri ona!

KONTAKTUA: 945 25 24 40 (Iñaki)

TXABI ARNAL GIL

beste batzuk

HOU PITXU HOU!

amaia zubiria

ELKARRIEN



Hou Pitxu hou! deritzan lana Urte sasoiak proiektuaren bigarren emaitza duzue. 1997an Pantxo eta Peioren ahotsetan Oles ta Oles eguberriko kantuz osaturiko diskoa plazaratu zen. Oraingoan Ikastolen Elkar-teko eta Labayru Ikastegiko kideek Euskal Herriko txoko guztietatik Udaberriari eskainiriko kantuak jaso dituzte. Ihauteri, Agate Deuna, Kandelario eta antzeko jaien inguruko

kantuz osatzen da, beraz, Amaia Zubiriaren ahots ederrean aurkezten dizuegun konpaktu hau. 16 kantuaren barrena tradizioaren usaina, eta gure herriko iragana eta orainaren arteko lotura bikaina.

ANTOLOGIA

etxamendi eta larralde

ELKARRIEN



Euskal kantu tradizionalaren jarraitzaileak, berau aberastuz beti. Bikote honen ospeak eta iraupenak badituzte beren arrazoiak: ahotsen uztarte miragarri hori, bategitik, bi nortasun sakon eta sendoren elkartze

lirikoak, bestetik... *Sua* da Etxamendi, *haizea* Larralde. Maitasuna (emakumea, lurra eta aberria), artzain-bizitza, bizitzako gozomikatzak..., gaiak. Gartsua eta hunkigarria, hauek adierazteko modua. CD bikoitz honek 36 kantu ditu. Grabazioa *a capella* egin da oso osorik, kantarien adieraz-modu jator eta berezkoenari bidea emanez. Kantu horietatik 22 bere horretan utzi dira, eta 6 bere alaba Maddirekin kantatu ditu Etxamendik.

axular

LIBURUDENDAREN ESKUTIK

☆

LIBURUDENDA

BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 43 00 73

LIBURUDENDA

axular

Arka plaza, 11 - 01005 GASTEIZ



BERTSOAK MUSIKA

Gasteizko plazara. GEU Elkarteak antolatuta eta Geu Gasteizen laguntzaz, bertso saioa jasoko du berriz ere Principal Antzokiak. Otsailaren 27an izango da. Sarrerak alde aurretik jaso daitezke ohiko lekuetan eta Geu Gasteizko harpidedunok, otsaileko aldizkariko etiketa erakutsiz gero, 350 pezetako deskontua izango dugu. Bertsolariak hauek izango dira: Andoni Egaña, Oihane Perea, Jon Sarasua, Asier Otamendi, Unai Iturriaga eta Oihane Enberita.

GEU Elkarteak

Pedro Asua kalea, 2. 3. solairua.

945 22 21 53

ANTZERKIA

Opera eta opereta. Giuseppe Verdi egile italiarraren operarik onenetako bat antzeztuko da Gasteizen, hilaren 23an, asteartea: il Trovatore. Aurretik, baina, otsailaren 15ean, astelehena, W.S. Gilbert

eta A. Sullivanen Los Piratas umorezko opereta ikusteko aukera

izango dugu. Los Piratas, itsas-lapurren eta goardia zibilen arteko norgehiagokak deskribatzen ditu.

Principal Antzokian, 20:30etan

Los piratas: 2000/1750/1500.

Il Trovatore: 3000/2500.

www.vitoria-gasteiz.org

EUS. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 1999ko denboraldiari ekin dio honezkerok Juanjo Mena eta Gilbert Vargaren zuzendaritzapean, otsailaren 10an asteazkenean eta 19an ostiralean izango da Gasteizko Principal Antzokian. Hilario Extramiana, Alan hovhanness eta Sergei Prokofieven lanak interpretatuko dituzte, 10ean, eta Johannes Brahms eta Claude Debussyrenak, 19an.

Principal Antzokian

Otsailak 10 eta 19, 20:00etan

Besaulkia: 2.250 Anfiteatroak: 1.350

www.vitoria-gasteiz.org

Gazteak baina adina prestatuak. Lelo entzungarri honen azpian hiru musikari gazteak ezgutzeko parada ematen zaigu. Pablo Martin Caminero (Kontrabaxua) eta Daniel Oiarzabal (Klabea) otsailaren 18an, osteguna, airtuko dira. Patricia Azanza (Pianoa) eta Oscar Lopez (Bibolina), berriz, martxoaren 5ean.

Principal Antzokian

Otsailak 18 eta martxoak 5, 20:30etan

Sarrera bakarra: 1000.

www.vitoria-gasteiz.org

Bluesa eta umorea. The

Blues Brothers talde ezaguna (edo hartatik geratzen dena) ia bo ordu t'erdiko saio gozagaria eskeintuko dute Principalean.



Principal Antzokian

Martxoak 3, asteazkena. 20:30etan

Besaulkia: 3000. Anfiteatroak: 2500.

www.vitoria-gasteiz.org

ekitaldiak
OTSAILA

Ellax Dox antzerkia.
Las insustanciales
Otsailak 2, 20:00etan

Manuel de Cadiz.
Kitarra eta perkusioa
Otsailak 9, 20:00etan

Ipuinkontalariak.
Otsailak 23, 20:00etan

MARTXOA

Shertat, herriz-herrri kontu-kontari
Cuentos para llegar al Sahara
Martxoak 2, 20:00etan

Olerki emanaldia.
Martxoak 9, 20:00etan

Korrika 11

Bertso afaria Iratzo, Otamendi Zgor Enbete eta Uratx abokaria. Otsailak 13, larunbata, 22:00etan, Txusta tabernan.

UEMARI buruzko hitzaldia Pako Arregi eta Anton Bilbao Otsailak 17, asteazkena, 20:00etan, Florida Kultur Etxean.

Musika eta olerki emanaldia Mikel Markez eta Pako Arregi Otsailak 18, osteguna, 20:00etan, Florida Kultur Etxean.

Mahai ingurua Euzkai Herriko Selektorearen Aldeko Taldea Otsailak 24, asteazkena, 20:00etan, Floridako Kultur Etxean

Bertso-trama Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Oihane Perea eta Anartz Ugarteok Otsailak 25, osteguna, 20:00etan, Florida Kultur Etxean.

erakusketak

KORDOI ETXEA.

Foru aldundiko Kultura Sailak eta Caja Vital Fundazioak Arabako buzingintza laburbiltzen duen erakusketa antolatu dute. Otsailaren 20ra bitartean, Jose ortiz de Zarate, Federico Garmendia eta Nicolas Agirrebeitiaren lanak ikusgai dira.

MONTEHERMOSO.

Otsailaren 28ra arte Carmelo Ortiz de Elgearen Antologiak goza dezakegu Montehermoso Kulturuneko areto guztietan. Artista bilbotar-gasteiztarrak bizitzan zehar landutako estiko antzak jasotzen ditu mosttrak, errealismotik pop-artera.

LEZURI TABERNA.

Bustinzuri kalean (San Martin) kokatzen den taberna honetan Geu Gasteiz aldizkari argazkilaria izandako Asier Pz. de Karkamoren argazkiak daude ikusgai, martxoaren 21a arte.



Errege Atea 9

GASTEIZ

☎ 22 65 64

GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

JANTZI ETA OPARIAK

Aiztogile (KUTXI), 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

ONGI ETORRI

xurruT

KUTXI 103
GASTEIZ

LA RIOJANA

jatetxea on egin!

bokatak, pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA

HARATEGIA

Paraguay merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra !

35

adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ



PILOTA hankaz gora

Bi enpresa, bi eskuaz binakako

txapelketa, telebistak,

tirabirak... Ez dugu lasai pilota

mundua azken hilabeteotan.

Pilotazaleei Aspe eta

Asegarce, berdin die,

Ogeta eta Atano III, ETB eta

Tele 5... Hainek pilotari guztiak

elkarrekin ikusi nahi dituzte;

Retegi Goñiren aurka, Titin-

Beloki aurrez aurre...

TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

Zoritxarrez, ezinezkoa dugu hori egun. Bage- nekien Aspe eta Asegarce enpresen arteko harremanak ez zirela onak, baina esku binakako txapelketarena ederra izan da. Aspek, hau da, besteak beste, EITBk, Espainiako txapelketan hartzen du parte, eta Asegarcek, berriz, Tele 5-k eta El Correo Español-ek barne, Euskal Herrikoan. Bake prozesuak emaitza onak eman ditu pilotan, ala? Hau zorame- na!

ASPE:

AITOR ELKORO, LASA III,
MIKEL GOÑI, PATXI EUGI, TITIN III...
GUZTIRA HAMABOST BAT PILOTARI.
ARABARRAK: ARROIO II.

ASEGARCE:

JULIAN RETEGI,
ALUSTIZA, RUBEN BELOKI, ARRETXE,
ERRANDONEA...
GUZTIRA 25 BAT PILOTARI.
ARABARRAK: PINEDO ETA NALDA II.

ALTIN:

NAGORE ETA UNANUE

BEIAGAIN:

ARABARRAK: ARROIO III, ALONSO
ETA LEGORBURU.

**ARGAZKIAK: EDORTA SANZ
ETA ASPE S.L.**

Adituek diotenez, politikak ez du zerikusirik kontu horretan. Gakoak dirua eta interes pertsonalak omen dira. Asegarce enpresa jaun eta jabe zenean, Aspe enpresa jaio zen; hain zuzen ere, 1998ko otsailaren 23an, 23-F, alegia. Aspeko arduradunek diotenez, Asegarceren monopoloia ez zen ona. Batetik, bazegoelako merkaturik, eta bestetik, pilotari gehiago behar zirelako frontoietan. Guk pilotari gazteak bultzatu ditugu, eta

ezbairik gabe, pilotaren onurarako izan da hori. Hala eta guztiz ere, gure ustez oraingo egoerak (tirabirak, eztabaidak, akordio eza...) guztioi



HEGOALDE
euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

27
geu gasteiz

egiten digu kalte. Esaldi batean, urteko zitarik garrantzitsuenetan bi enpresen pilotariak batera egon beharko lukete, eta ez norgehiagoka ezberdinetan, eskuz binakako txapelketan gertatu den bezala... Asegarce-

Gaurko esku-pilotaren nondik-norakoak

*ENPRESAK.

Lau enpresa ditugu esku pilota profesionalean: Aspe, Asegarce, Alti eta Besagain. Nagusiak, ordea, Aspe eta Asegarce dira.

*FRONTOIAK.

Pilota partiduak Euskal Herriko eta inguruko eskualdeetako edozein frontoitan ditugu, baina urteko zitarik garrantzitsuenak lauzpabost frontoitan izaten dira, besteak beste, Gasteizko Ogeta, Eibarko Astelehena, Iruñeako Labrit, Donostiako Atano III eta Logroñoako Adarraga. Lagun gehien sartzen diren frontoia gurea dugu, Mendizorroztako Ogeta, alegia.

*APUSTUAK.

Benetako apustulariek talde txiki bat osatzen dute frontoietan eta guztira, 300 bat baino ez dira. Alabaina, beti ditugu aulkietan, oso gogor jokatzuz, gainera. Giro horretan funtsezko papera betetzen dute artekariak (korredoreek); horietako asko pilotariak izandakoak dira, eta apustuaren zati bat bereganatzen dute. Apustulari gehienak 40 urtetik gorakoak eta enpresa gizonak ditugu, eta esan beharrik ez dago diru arazorik ez daukatela.

*PILOTAK.

Normalean txapelketetan erabili ohi dituzten pilotak berriak izaten dira. Enpresariak, dena den, apurtxo bat ukitzen omen dituzte kantxaratu baino lehen. Gero erabilitako pilota hauek entrenamenduetarako eta eskuak lantzeko gordetzen dira, antza.

Retegi ez da pilotalekuetako izar bakarra, lehen bezala. Orintxe Titin III.a-k, Eugilik, Belokik edo Goñik berak ere frontoiaik betetzen dituzte, ez gaude une txarrean.

MIKEL GOÑI MARTINIKORENA

GOÑI II

Jaiotze data:
1977-4-25, 21 urte.

Oronozen.

Garaiera: 1,83 m.

Pisua: 82 kg.
Garaiera: 1,83 m.

Garaiera: 95eko
Diario Vasco
Sariko txapelkun,
97ko 2. Mailako
azpitxapelkun, 98



Mikel Goñirena aipatzekoa da.

Mutil gaztea, indartsua, pilotari bikaina, ikusgarria den horietakoa... Halere, frontoian ez ezik, kalean ere ezaguna dugu nafarra. Hona hemen orain aste batzuk telebistako saio batean Goñik esandakoa: Bai, partiduen ostean putetxetara joan ohi naiz lagunekin, baina bertan barre egin eta edan baino ez dugu egiten. Goñik kalean nahi duena egin dezake, baina ez zuen hori zertan esan, batez ere, kalte egingo diolako. Aspekoek horrela azaltzen dute: Mikelek jendetza erakartzen du frontoietara. Dena den, gu ez gara ertzainak. Badakizu, gaztea, ederra, patrikan dirua... Hala eta guztiz ere, fariseokeria izugarria da gurean.

koek, aldiz, ez dute Aspe izena entzun nahi. Guk ez genuen inolako iskanbilarik hasi. Pilota hankaz gora dugu orain, baina errudunak ez daude gure espaloian, diote Aspekoek.



Fidel
Alonso
[goian]
eta



Aitor Pinedo
[azpian] 2.
mailako
Arabako
bi pilotari.
Besagainekin
aritzen da
lehen,
Asperekin
bigarrena.



ARANBIZKARRA

ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoieko ertzean Tfnoa: 25 03 52

1999ko zitarik garrantzitsuenak

Lehen esan bezala, pilotan bi enpresa nagusi ditugu egun. Eskuz binakako txapelketa antolatzeko orduan, ez da horien arteko akordiorik lortu, eta beraz, txapelketa bakarra izan beharrean (hala izan behar zuen, bestalde), bi izango dira, azkenik. Espainiako Federazioak antolatutakoan Aspeko jokalariek hartuko dute parte, eta Euskal Herriko Federazioak antolatzen duen norgehiagokan, berriz, Asegarcekoek.

Horrela:

EUSKAL HERRIKO ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

Final-aurrekoak: otsailaren 21ean eta 28an. Finala: Martxoaren 13an.

ESPAINIAKO ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA

Estatukoan final-aurrekoak otsailaren 21ean eta 28an. Finala: Martxoaren 14an.

ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETA AIRLEAN

Oraintxe eskuz banakako txapelketa antolatzeko eztabaidan ari dira enpresak, baina, dirudienez, finala Maiatzaren 30ean izango da.

PUBLIZITATERIK MERKEENA ETA ERAGINKORRENA

GRU GASTEIZ

PEDRO ASUA, 2. 3A.
22 21 53

botepronton

Ez zen lan erraza izan pilotagile batzuk aldizkariko orrialdeotara ekartzea, bakarrik baitira Euskal Herrian. Egia da beste lagun batzuek pilotak egiten dituztela, baina ez eguneroko lanean, eta gainera, horiek ez dira Retegik, Mikel Goñik edo Eugik erabiltzen dituztenak. Sestaon egiten dira hauek, Cipri anaiak egiten dituztenak, alegia.

Beste pilotagile batzuk dauden arren, pilotari profesionalek erabili ohi dituzten pilota gehienak zuek egiten dituzue. Besteek pilota txarrak egiten dituzte, ala?

Ez, ez. Gu pilotagileak gara lanbidez. Hau da, beste batzuek ere egiten dituzte, baina ez da euren lana, bigarren lana baizik. Pilotak egiteak ez zaitu aberasten, eta horren ondorioz, bakarrik gara. Nola egiten da pilota bat?

Pilotak hiru zati ditu. Batetik, goma, bestetik, artilea, eta azkenik, larrua. Pilota bat egiteko bi ordu t'ardi behar ditugu, eta eskuz egindakoak direnez, 5.500 pezeta balio du bakoitzak. Astelehenetik igandera egiten dugu lan, oporrik ez... Pentsa, gure oporrak soldaduzkan izan ziren... Eta jo eta ke lanean aritu arren, ez gara aberatsak, noski.

Eta nork irakatsi zizuen pilotak egiten?

Gure aitak irakatsi zigun, eta aitari aititak. Antza, aititak bere kabuz ikasi zuen. Aitak Cipriano zuen izena, eta horregatik guri Cipri anaiak deitzen digute. Gu frontoian jaio gara, txikitatik hantxe, hiru pareten artean, aita kantxeroa baitzen. Hori bai, gu bera baino hobeto bizi gara, haiek gutxiago irabazten zuten eta.

Eguno pilotarien eskuak xamurrak dira?

Askok diotenez, lehengo pilotariak indartsuagoak ziren, gu ez gatoz horrekin bat, ordea. Denetarik dago. Halere, egungo pilotariak gehiago babesten dute eskuak, batzuek eskularruak daramatzatela dirudi.

Cipri anaiak

Pilotagileak



Zein da zuen pilotaririk kuttunena?

Inor ez, eta guztiak, hau da, ondo jokatzeko duena. Alabaina, pilotari gogor jotzen diotenak atsegin ditugu: Beloki, Mikel Goñi, lasaitu behar den arren...

Apustueta dena galdu duen baten bat ezagutzen duzue?

Entzun, bai, ezagutu, berriz, ez. Noiz edo noiz jokatu dugu, baina, gutxitan. Apustueta ez dago aberasterik. Puntako pilotan bi enpresa indartsu ditugu; Aspe eta Asegarce, alegia. Bien arteko borroka kalte egiten dio pilotari?

Enpresa bakarra dagoenean, ez dago arazorik, noski. Baina, bi direnean... Gure ustez, egoera hori egun batetik bestera aldatuko da, bata ala bestea desagertuko baita. Pilotarientzat ona da, diru gehiago bereganatzen dutelako; pilotazaleentzat, berriz, ez.

Pilotariak aipatu dituzue. Askotan horiek erruduntzat jotzen dute pilota norgehiagokak galtzean...

Beste kirol batzuetan pilota berdina da. Gurean ez da horrela. Aldea txikia den arren, bi pilota ez dira inoiz berdinak. Pisuan, adibidez, lau gramoren aldea egon daiteke: 103 gramo, 107... Zezenetan atxakia zezena den bezala, pilotan pilota. Sestaokoak izanik, Realzaleak izango zarete?

Jainkoak talde bakarra egin zuen bikain, Athletic, alegia. Gainerakoak atzeritarrez bete zituen.

TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL.
ARGAZKIA: EDORTA SANZ.

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea. 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendañu kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

MIKO

izozkiak

PARRAL

SAN FRANCISCO KANTOIA 4 GASTEIZ
TEL. 276833-01001

Astakeratzeak: JARRAKI, BEGIRABERRIA, PARRALAK, OLABA

ZENTRAL ZAHARKITU BATEN MISERIA

Alberto Frias / Eguzki talde ekologistaren kidea

ahiz eta betidanik Garoñako zentral nuklearra ixteko arrazoi eta argudio ugari egon, eta nahiz eta hiritarren arteko iritziz nagusia hori izan, azken hilabeteotako gertakariak bultzada berria eman diote eskari -edo hobeto esanda premiazko beharra- honi.

Laster 28 urte beteko dira Garoña martxan jarri zenetik, eta funtzionamenduan igarotzen duen egun bakoitzak hondamendiaren arriskua areagotzen du. Eta ez dugu istripua hitza erabiltzen, istripuak jadanik gertatu direlako. Gogoan ditugu 1983an nahigabeen Ebro ibaira askatu ziren ur erradiaktibo 68.000 litroak, 1985ean ihes egindako 14.000 litroak edo 1989an askatu 25.000 litroek sortu zuten lurrin hodeia eta, batez ere, 1991ean gertatutako nazioarteko eskalan <<1 gradu>>ko istripu larria.


Istripu haietako azkena, Ebroko urtegiaren ertzean, Arabako Sobron herrian gertatu zen abenduaren 14an, eta berriro azalarazten ditu Nuclenor (Iberdrola) enpresa jabe eta gure ziurtasunez arduratzen den erakundearen -CSN- gezurrak, gure gainean daukagun arriskua agerian utziz. Horren hiru adibideak hauek dira; CSN istripuaz jabetu zela gertatu baino ordu bat eta hamabost minutu geroago, ohikoa baino 3.000 aldiz gehiagoko erradioaktibitate maila zuen pieza bati erradioaktibitatez garbituta iritzi ziola, eta errepidean neuritutako erradioaktibitate maila naturan zegoenaren parekoa zela, 10 aldiz biderkatu arren. Sobroneko istripua ezin zaio kasualitateari egotzi, iragarrita baitzegoen. 1985ean Energia Zuzendaritza Nagusiak 5.000.000 pezetako (30.675 euro) isuna ezarri zien jabeei garraioan irregulartasunak zirela eta. Huts egite hauei garraio hauen maiztasun handia gehitu behar zaie. 27 urtez 800 bidaiaria inguru burutu dira, gehiengutan zeharkatzen ziren udalei bidaiaren berri eman gabe.

27 urte horietan ez da nuklear istripu-simulaziorik egin, nahiz eta Larrialdietarako planak urtean behin burutzeko beharra ezartzen duen. 27 urteotan akatsak, hutsegiteak, zirrikituak eta ezbeharrak ezkutatuak izan dira, CSNk agintzen duen bezala. 27 urte hauek, azkenik, herri nahiaren bahiketaren urteak izan dira. 1997ko inkestak garbi erakutsi zuen Gasteizko hiritarren % 57 behin-betiko itxieraren alde-

koa zela, eta Errioxa, Nafarroa eta Aragoiko Legebiltzarrek, Gesaltza, Labastida, Kuartango, Miranda, Logroño eta Gasteizko udalek (honek hiru aldiz, Urtarrilaren 16an azkena), eta Araba, Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko nekazal sindikatuek eskaera bera luzatu diote Espainiako Gobernuari. Oraindik eskaera egin ez dutenen artean Arabako Batzar Nagusiak daude eta 27 urtez mantendu ixiltasun azalgaitzaren ondoren, gai honi buruzko jada bi urte dituen ponentzia-eztabaidaren emaitza moduan otsailaren 9ko bilera-rako aldarrikapenarekin bat egingo dutela iragarri dute. Ordurako zuok, irakurleok, jakingo duzue.

Baina hau guztia berez kezkarria bada ere, are gehiago datozen urteetarako aurreikusten den panorama. Iberdrola eta Electricidad del Viesgo enpresa jabeek milioika urtetarako lapurtu digute Garoñako ingurua. Itxi eta 30 urte pasa arte ezin izango da erreaktorea desmuntatu, azkenik hondakinak han biltzea erabakitzen bada milaka urtez Arabako mugaren ondoko eremu hori jendearen erabilpenetarako debekatuta egongo da, eta gure poltsikotik aterako diren 100.000 milioi pezetatik (613 milioi euro) gora gastatuko dira horretan. Diru kontuen zaletuentzat esan behar dugu, egunetik egunera eraispenaren prezioa handiagotzen dela, tratatu behar diren hondakinak gero eta gehiago direlako.

Urtarrilaren 17an hasi zen geldialdi programatuak ez du inor engainatu behar, inolaz ere ez delako gure eskaeraren erantzuna. Behin-behineko geldialdiak hilabetetik gora iraungo du. Denbora horretan guztian ehundaka matxura txiki konpontzen saiatuko da eta datozen bi urteetarako erregaia edo uranio erradioaktiboa sartuko da erreaktorearen barruan. Horrek esan nahi du bi urte gehiago behintzat iraungo duela. Beste datu honekin batera, hots, iaz burutu zirela hondakinak gordetzeko biltegia zabaltzeko lanak, argi azaltzen dute zein den, eragozten ez badugu, Nuclenorren asmoa: 2010. urtearen ondoren ere jardutea. Demokraziak, hainbesteren ahotsetan goraiatzeko den hitza, ez al du erasorik bortitzena jasotzen agintarien eta Iberdrola bezalako enpresen jokaera hauekin? Garoña, noiz arte?



NONBAIT

Loma jeneralaren plaza, 5 • 01005 GASTEIZ • Tlf. & faxa: 945 13 93 09

OPARIAK: ZERAMIKA, ZILARRA, POSTALAK...

KAMISETAK: BARABÚ, GREENPEACE, KOT, PERRETXIKOAK BASOAN...

EUSKAL OIHALAK



ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA		HELBIDEA	TFNOA.
Udaletxea	Argibideak eta Erregistroa Emakumeentzako Zerbitzua Errolda Euskara Zerbitzua Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prentsa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	16 11 88 16 13 45 16 11 06 16 15 22 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11 Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza Hiri Hobekuntza Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 88
Kultura	Argibideak	Goiuri Jauregia (<i>Villa Suso</i>)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11 16 13 48
Gizarte Etxeak	Ariznabarra Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Landatxo	Ariznabarra kalea, 19 Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Urriaren Hamabiaren kalea, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Santa Maria kalea, 4	13 36 91 16 18 80 16 17 60 16 17 40 17 17 81 16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Bulegoa Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91

UMOREA
Txeroki



ZER EGIN SAKABANAKETAREN AURREAN

Cecilio Lpz. de Luzuriaga / Gasteizko Senideak-en kidea

gerian dago PPK, PSOEn eta komunikabide askoren laguntza tarteko, ez duela euskal preso politikoak Euskal Herrian izan daitezen nahi. Legeak, Espainiako Herriaren defendatzaileak, epailetzak hala izan behar duela dioten arren eta euskal gizarte guztiak hala nahi badu ere. Ez dituzte aintzat hartzen, era berean, erakunde demokratiko, alderdi eta politikarien iritzia, ez gizartearen gehiengoak edota manifestaldi jendetsuen agerraldiak.

Halaber, axola gutxi dio PP eta bere jarratzaileei jakiteak sakabanaketa torturatzea dela eta bulegoetatik eta espetxeetatik horretan laguntzen duten torturatzaileei babesa eta zigorgabatasuna ematea dela. Horientzat ez da garrantzitsua guztia legezkontrakoa eta agintekeria izatea, samina sorraraztea (euskal gizartearen, baina batik bat senitarteko eta lagunaren artean) edota guztiz ankerra eta bidegabea izatea burutzen ari direna. Ba al da euskaldunak horrelako jokabide politikoak zapaltzen dituen pareko oldarkeriarik? Ez da makala guri legea guztiontzat bera den sistema demokratiko batean gaudela sinistarazten dabilzanen lana!

Jakin ahal izan dugunez, PPKo jarraitzaile guztiak ez daude bat buruzagiek esan eta egiten dutenarekin -nahiz eta gertatutakoagatik minduta egon- eta irrikitan daude galdutako lasaitasuna berreskuratzeko (horretan bat egiten dute Euskal Herriko jende askorekin). Bistakoa, beraz, euren alderdiaren gatibu direla eta espetxeetako politikak zirikatutakoak direla.

Delako egoera konpontzeko, koherentzia, argitasuna eta ausardia behar dira. Inoiz hutsik egin ez diguten euskal herritarrek badute zapalkuntza horiek salatu eta lapurtutako eskubideak itzultzeko erronka. Ez du bidea batere errazten "kaleko biolentzia" gaiak aurretik jartzea, maiz ari da gertatzen hori, izan ere espetxeetako politika probokatzailak eragiten duen gizartearen haserrearen ondorio baino ez baita. Biak parekatzea, arkakusoa elefantearekin alderatzea bezala litzateke. Inork ez du ahantzi behar ahots horiek garai batean gauza batzuk eskatu zituztela eta orain, aldiz, beste batzuk. Eta zer gertatuko da belauniko eta isilpean ibili ordez arrastaka ibiltzeko eskatzen digutenean? Gehiegizkoa da behin eta berriro

engainatuak, zapalduak eta kriminalizatuak izan garen euskaldun askoren sufrimendurako!

Hortaz, horri guztiari behin betiko bukaera emateko irtenbideak aurkitu eta sakabanaketari amaiera eman behar diogu. Hori dela eta, Senideak-ek gogoeta jardunaldirako deialdia egin zuen joan den urtarrilaren 30ean. Euskal Herriko hainbat auzo eta herritan burutu da. Beronen helburua irtenbideei bidea eman eta inposaketak galarazten dituzten ekimenak bultzatzea da. Senideak-ek jakin nahi du nola behartu dezakeen euskal gizarteak PP legea betetzera. Zer egin behar dugu?

Ez da erronka makala euskal presoak Euskal Herrira etor daitezen nahi dugun abertzale eta demokratontzat!

Zer eskatzen dugu?. Mugarik gabeko ekimenak izenburuaren galderari erantzun ahal izateko. Orain arte eginikoa positibotzat jotzen dugu, baina ez da nahikoa izan. Zer da ba egin beharrekoa? Hausnarketen ondotik etorriko zaizkigu konponbideak.

Senideak-ek behar diren kontu guztiak eztabaidatzea pentsatu du. Hartara, honako kontu gai erantzungo dien ideiak sortzea da asmoa:

Herritarrek aho batez eskatzen duten aldarrikapena gauzatze-ko beharra: euskal preso politikoei dagozkien eskubideak errespetatzea eta Euskal Herrira ekar ditzatela.

Erakunde demokratikoei espetxeen politika arloan izandako akordioak betetzeko eskatzea eta presoek legez onartuak dituzten eskubideak errespetatzea, eta eskariaren izapidetzea gobernu espainiarra eta frantsesaren aurrean eginez.


Sakabanaketa eta presoaren giza eskubideen zapalkuntzari amaiera ematea ahalbidetuko duen gaur egungo gizarte kontsentsua nola gainditu egituratzea.

Komunikabideak PPrekin duten loturak askatzea bultzatzea eta hartara

beren irakurleek herri demokratiko bati dagozkion komunikabideen baloreak berreskuratuko dituzte.

Urtarrilaren 30ean buruturiko hausnarketa zabal eta sakonaren helburua lortzea xede duten proposamenak burutzea.

Orain bera abian dela zabaltzea nahi dugu. Pozik gaude ekimenarekin, gure nahia guztiontzako etorkizun hobea eskuratzea baita. Eta ziur gaude laguntzarekin lortu ahal izango dugula.



EUSKAL PRESOEN ERKIBIDEEN RIDE



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



ARABA PABILIOIA ABIZENEZ ALDATU DA

Pablo Ruiz de Aretxabaleta / kazetaria

asi berria dugun urteko urtarrilaren 2an (larunbata), egunkaria irakurri nuenean honako berri honek harrিতuta utzi ninduen: *Pabellón Alava-Araba Pabilioi* delakoak aurrerantzean *Araba Arena* izena izango zuen. Arabako Foru Aldundiak abenduaren 31n burututako Diputatu Kontseiluan hala erabaki bide zen. Betidanik uste izan dut ohikoa dela politikarientzat Aste Santua, abuztua edota abenduaren 31 bezalako egunak jendeak gogoko izan ez edota batere ulertuko ez dituen erabakiak hartzeko aukeratzea eta horrek baduela gautarkeriaz, jakinaren gainean eta maltzurkeriaz egina izanaren kutsua berekin.

Diputatuek argudio hauek zerabiltzaten aldaketa arrazoitzeko: *Aldundiak aipatutako pabilioiaren eraldaketa sakonean egindako inbertsioak hala eskatzen zuen nazioartean ospea lortzera bideratutako komunikazio estrategia baten barruan.*

Denok genuen ezaguna euskarak eta gaztelaniak Hegoaldean duten ofizialkidetasuna, baina, antza denez, ingelesa ere hartu beharko dugu kontuan hemendik aurrera (gainera benetako ingelesa barik latina den ingelesa, baina hori, aurrerago azalduko dugu). Euskara hemen eta geure mugetatik kanpo sendotzea eta normalizatzea helburu duen XXI. mendeko akordioa sustatzeko edo izango dela uste dugu. Badakizue, Kontseiluak antolatutako *Bai Euskarari* hori eta abenduaren 26an Iruñean, Bilbon, Donostian, Miarritzen eta Gasteizen milaka pertsona bertaratu eta sustatu zuten amaierako ekitaldia eta hori guztia.

Egia esan, nik ez dut oso ongi ulertzen hainbat gauza. Orain ari garen momentu honetan, Euskal Herri osoko erakunde politiko eta sozialen multzo handi bat geure hizkuntza zahar hau salbatzeko eta aldi berean mundu osoan behar bezala estimatua izan dadin kanporatzeko sekulako ahalegina egiten ari den momentu honetan, nola alferrik galdu ote daiteke beste baliabide edo bitarteko bat, gaur egun *Araba* pabilioia izan daitekeen bezala? Izan ere, eraikin publikoa denez, hau da denok ordaindua, logikoa *Pabilioi* edo *Kiroldegi* bere euskal abizena gehituz euskara zabaldu eta bultzatzea litzateke, areago gaur egun *Araba* izena den-denek onartua zutenean.

Diputatuek edaten duten iturburua eta dirudienez konkistatzeko asmoa duten merkaturaren estatubatuarrek *Jai Alai* geure hitzak ere ikasi eta, bide batez, bereganatu zituzten eta ez zitzaizen ezer ere gertatu. Baina ez, euskal hitza estatubatuarrek darabilten *Arena* latinezko hitzaz ordeztari bidea zabalik utzi diote. Non zen Euskara eta Kultura Diputatua? Ez al zuen horrelako bidegabekeria eragotzi beharko?

Bitxia da ikustea nola jotzen duten berriro ere gure politikariek gizarteak eskatzen dien bidearen kontraktatik. Eguneroko bizitza errealekiko lotura galdu eta beren interes eta beren iruzkinak besterik kezkatuko ez balituzte bezala.

Horren frogarik nabarmenena kalean erantzunak berehala agertu izana dugu. Eta hasierako ustekabearen ondoren, izen aldaketari buruzko mota guztietako iritziak aditu dira: zatarrak, pedanteria, snobkeria, hantustea, baserritakeria, eta zenbait gehiago ere bai; eta horiei guztiei ezbeharrezkoa, erabat ezbeharrezkoa, gehituko nieke nik. Hori bezalako edota beste edonolako azpiegitura bat saltzeko, berari buruzko datuak dira eduki

eta erakutsi beharrekoak: bere edukiera, aukerak, sarbideak, kiroldegiaren esparruak berak eta berau dagoen hiriak dituzten mota guztietako instalazioak... Baina izena, gutxienekoa da izena, eta ez da inondik inora funtsezkoa, gure diputatuek argudiatzen zuten moduan. Bestela, edonongo edozein pabilioiri izena aldatzea besterik ez legoke eta den-dena eginda izango genuke, mota guztietako ikuskizunak ekar genitzake bertara. Hori egiaztatzeko, gainera, ez da oso urrunera joan behar: *Poli-deportivo de Mendizorroza* edo *Mendizorrotzako Kiroldegiraino* besterik ez. Bertatik munduko Jazz artistarik onen eta ospetsuenak pasatu dira: Ella Fitzgerald, Miles Davis, Duke Ellington edo Eric Clapton. Horiek guztiak "Festival de Jazz de Vitoria-Gasteiz" edo Gasteizko Jazzaldira etorri dira, inongo izenik aldatu beharrik gabe.

Arena hitzak, hiztegitan dakarrenaren arabera, zentzu figuratua bi esanahi ditu. Bata, zezenketen mundukoa, zezen plazaren hondarra, zezenketak burutzen diren gune biribila, izendatzeko. Bestea, guduka edo borrokaren tokia izendatzeko, zirku erromatarren kasuan batik bat erabiltzen dena. Azken hori da estatubatuarrek bereziki (Europar, izan ere, ez da ia erabiltzen) bereganatu dutena beren kiroldegi-pabilioi handiei (batez beste 17.000-18.000 ikuslerentzako edukiera dutenak) handitasuna aregotzeko eta nolabaiteko kultur kutsua emateko.

Gauza bera egin dute latinezko beste hainbat hitzekin, hala nola: Coliseum, Forum, Auditorium, Pavilion, Spectrum, Stadium eta abarrekin; dena den, horrelako lekuetarako gehien erabiltzen duten abizena *Center* ingeles hitza da. Baina, are tristeagoa da Arabako Foru Aldundiak, beren jakinarazpenean dioenez, deitura hori latinetik etortzeagatik ez baizik estatubatuarrek erabiltzen dutelako aukeratu izana. Orainsu izan dugu, bai, arestian ingelesa irakastearen aldeko eta euskararen kontrako adierazpenak egin zituen hurbileko politikari bat, izan ere haren ustez ingelesak aberasten zuen bezalaxe euskarak pobretu egiten zuen. Horrelako erabakiekin ez al zaio arrazoi apur bat aitortzen? Ala, aitzitik, lehen esan dugun legez, estatubatuarrek *Jai Alai* bereganatu eta ikasi baldin badute, zergatik ez dute *Araba Pabilioia* esaten ikasiko?

Gasteiztar batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari Zurbaoko pabilioiari *Arena* izen hori jartzeko asmoa bazuten zergatik ez zen egokiago eta zentzudunago izango Zurbaoko abere plazaren birmoldaketaren aurretik zegoen beste aukera, Zezen Plazara joatea alegia, izan ere bertan harea jarrita baitzegoen eta gainerakoa egitea baino ez baitzen faltako.

Eta Vitoria-Gasteizeko arte garaikidearen museo berriaren izenarekin zer gertatuko den ere galdetuko dio bere buruari jendeak. Izan ere *hemen ez dugu ez Guggenheim ez horrelakorik ere nahi, gu geu bakarrik nahikoak gara museo adierazgarri bat eraikitzeko, eta hautaketa aberastu eta zaildu lezaketen ideia lehiaketa irekien beharrik ez dugu, ez dugu kanpoko eraginik nahi...* Tira, izenean baino ez. Horregatik *Arena* deituko diogu *Araba* pabilioiari, atzerrian hobeto ezagutuko baitute horrela. Ulerterraza, ezta? Ausardia apur batez, ideia pare bat plazaratuko dut: zer deritzezue *América Art Gallery* edo *Mintegi Work Center* izenei?

34
geu gasteiz

CASA DE CULTURA

Diputación
Foral de Álava

Arantza
Foro Alabandea

KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE KULTURA ETXEA

h i t z a k u l t u r e t x e a n

otsailak 4, osteguna

Poesia saioa

Poesiaren kontra, poesiaren alde

Ibon Zaldúa eta Gerardo Markuleta.

otsailak 18, osteguna

Errezitala

Tribuaren hitz salduak

Pako Aristi eta Mikel Markez.

martxoak 4, osteguna

Korrika kulturalaren barne

Kondoï bakoitzak bere istorioa dauka

Joxemari karrere.

Ipuin kondaketak (18:00etan)

Otsailak 3 Panta Rheiren *El rey voltereta*

Otsailak 10 Iñaki Carretero (euskaraz)

Otsailak 17 Oihulari Klown (gaztelerez)

ekitaldi guztiak arratsaldeko 8etan hasiko dira

Florida pasealekua, 9 - 945 18 19 44 - faxa: 945 18 19 45 - 01005- GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ZORIONAK

DASKONIA

etamilesker